

KANBODIA: Adingabeak erabiltzen dituzte umezurtz faltsu moduan turisten dohaintzak biltzeko > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bi bide orri eta erabaki estrategiko bat IÑAKI ALTUNA > 11

2016ko urriaren 22a | X. urtea • 490. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ERREPRESIOAK EMAKUMEARI ERAKUTSITAKO AURPEGIAK

> 12 Saturraranen preso egondako emakumeen familien artxiboa

Kanbodian adingabeak erabiltzen dituzte turisten dohaintzak biltzeko 04

Elkarrizketa: Alvaro Javier Riascos, bakegintza aholkularia 08

Gerraren atzeguardian borreroaren aurpegi latzenak ikusi ditu emakumeak 12


Ekotarriko kooperatiba, Zuhatsu Kuartangoko bainuetxearen eraikinean 17

Elkarrizketa: Imanol Ibero, EHNE Nafarroako burua 22

Elikagai ekologikoen bizitasuna, hiriburuetan 27


In fraganti: Eloi Beato 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Enpresa pribatuen botere pilaketa
 10 **Saioa Aginako:** Atxikimenduari buruz
 11 **Iñaki Altuna:** Bi bide orri eta erabaki estrategiko bat
 16 **EXPRAI**
 20 **Beñat Gaztelumendi:** Zilborrak
 21 **Laura Mintegi:** X jauna
 26 **Miren Azkarate Badiola:** Izuak koloreak ditu
 26 **Antton Izagirre:** Desorekak
 30 **Olatz Arregi Uriarte:** Munduko konputagailu ahaltsuena berdea da?



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Enpresa pribatuen botere pilaketa

H

auteskunde kanpainako debate batean Euskal Herrian ekintzaile asko dauden ala ez ika-mika txiki bat sortu zen. Ekintzailetasun indizea txikia zela esan zuen batek eta Japoniaren parekoa besteak. Kontua da indize horiek ez dutela ekintzailetasuna neurtzen, sortutako enpresa kopurua baizik. Eta gauza horiek arras ezberdinak dira: ekintzaile guztiek ez dute zertan enpresa bat sortu. Modu berean, enpresa bat sortze hutsak ez dut bat ekintzaile bihurtzen. Hala ere, erabilera ideologikoa helburu, bi kontzeptuok parekatzen dituzte politikariek. Izan ere, gure gizartean, enpresari eta politikarien ahaleginen ondorioz, enpresa pribatua instituzio garrantzitsua bilakatu da ezbairik gabe.

Bultzada hori erabili izan dute enpresek gizarteari etengabeko xantaia egiteko: edozein neurri soziali aurre egiteko deslokalizazio mehatxua jartzen dute mahai gainean. Salbuespen gutxi batzuk alboratuta, xantaiaren aurrean mundu guztiak amore ematen du. Horrela, lan harremanak goitik behera aldatzeaz gain, zergak ia ez ordaintzea ere lortu dute enpresek. Ohiko praktika izan da akordio bereziak egitea zerga autoritateekin erabat sinbolikoak ziren zergak ordaintzeko. Hala ere, zenbait kasutan hain eskandalagarria izan da egoera, krisi ekonomikoa eta murrizketak tarteko, Europako agintariek zergak ordaintzea eskatu dietela hainbat multinazional. Azken kasua Apple enpresarena izan da, baina aurretik beste batzuk ere egon dira, hala nola, Estatu frantseseko ADF, Italiako FIAT edota AEBetako Starbucks, McDonalds eta Amazon.

Zergarik ordaindu beharrik gabe, plusbalioak enpresetan pilatu dituzte enpresaburuek. Eta orain Gipuzkoako Gobernuak –beti prest enpresaburuei erraztasunak emateko– sistema biribiltzeko arau foral bat aurkeztu du langileek enpresetan parte har dezaten sustatzeko. Aldarrikatzen den helburua hori da, baina gero langileen parte hartzeaz ez da hitz egiten. Praktikan, proiektuak malgua egiten ditu enpresaburu eskualdatzaileak ondare irabaziengatik zergarik ez ordaintzeko baldintzak, hau da, pilatutako irabazi horiek guztiak zergak ordaindu gabe enpresatik ateratzeko bidea are gehiago zabaltzen du.

Hori guztia gutxi balitz, multinazionalak beste urrats bat eman nahi izan dute. Oraingoan merkataritza arloko nazioarteko hitzarmenen bidez. Hitzarmen horiek zerikusi gutxi dute merkataritzarekin: enpresei soilik aplikatuko zaien nazioarteko jurisdikzio berezia sortzeko ahalegina dira. Horrela, esparru askotan multinazionalen jarduera estatuen erabakien gainetik geldituko da. Gaia ez da berria. Aurrekari bat izan zen Inbertsioen Aldeaniztun Ituna. 1998an edukiak publikoa egin zirenean, bertan behera utzi behar izan zuten egitasmoa. Ondoren, TTIP delakoa adosten ibili dira. Hemen ere, iritzi publikoaren eraginez, oraingoz geldirik dago. Ez dute asko itxaron eta hurrengo saiakera mahai gainean dago: Europar Batasunak Kanadarekin negoziatutako beste «merkataritza hitzarmen» bat, CETA deitzen dena. Oraingoz Valoniako parlamentuak guztien adostasuna apurtu du eta, erabaki aldatu ezean, bertan behera geldituko da ituna.

Merkataritza arloko nazioarteko hitzarmenek zerikusi gutxi dute merkataritzarekin: enpresei soilik aplikatuko zaien nazioarteko jurisdikzio berezia sortzeko ahalegina dira

ren sinadura. Azkenean, sinatzen bada, ate bat irekita izango dute multinazionalak amestu duten jurisdikzio berezia izateko. Valoniak bere erabakia aldatu gabe mantentzen badu, beste hitzarmenen bat asmatuko dute eta horri ekingo diote. Kapitalaren logika errukigabea da.

Enpresek joko zelai propio bat eraiki nahi dute, non estatuetako erakunde politikoek ez duten esku hartzerik izango. Horrek ez du demokraziarekin bat egiten, baina gobernuei ez die kezka berezirik sortzen; azken finean, gobernuetako kargudunen erabateko gehiengoa enpresa pribatuetatik dator edo enpresa pribatuetara joango da. Ate birakari famatuen beste adibide bat. Ezkerrekook eta Euskal Herrian estatua sortu nahi dugunok oso kontuan hartu beharko dugu erakunde publikoetatik enpresa pribatuetara bitarteko botere deriba hori, aregotzen bada estatua konpetentziarik gabe geldituko baita azkenerako. •

KANBODIA

Adingabeak erabiltzen dituzte umezurtz faltsu moduan turisten dohaintzak biltzeko

 **JENDARTEA/** Pablo L. Orosa

Kanbodian turismoaren inguruan mugitzen den sektoreko (hotelak, jatetxeak, gidariak, establezimenduak...) hainbat eragilek atzerriko bidaiari ugariaren borondate ona baliatzen dute negozioa egiteko. «Negozio zikina», umezurtzak erabiltzen baitituzte bihotz oneko turistei iruzur egiteko. Ezberdintasun ekonomikoek eragindako fenomeno da.

Lighthouse Orphanage? Lehen turista asko eramaten nituen haraino, baina orain ez dut horrelakorik egiten. Iruzur hutsa zela jakin nuenetik ez ditut turistik bertara eraman nahi», esan digu Pho izeneko gidariak.

Metro batzuk aurrerago, ordea, Phnom Penh Kanbodiako

hiriburuko erdiguneko Independentziaren monumentuaren inguruan eguerdian itzaletan dauden eremu gutxi horietako batean, *tuk-tuk* (hiru gupil, bat aurrean eta bi atzean, dituen ibilgailua) bat gidatzen duen beste gazte batek ez du horrenbesteko eskrupulurik.

Kanbodiako hiriburuak duen eskaintza turistikoa zati ga-

Turistek argazkiak egin ditzaten posatzen dute adingabeek, gidari lanak egiten dituzte atzerritarrentzat eta «apsara» Kanbodiako erritmo tradizionala dantzatzeko dute. Pablo L. OROSA

rrantzitsu bihurtu dira umezurtzak. Turismoaren inguruan mugitzen den sektoreak (hotelak, jatetxeak, gidariak, establezimenduak...) Mendebaldeko bidaiari askoren borondate ona baliatzen du negozio egiteko: turista batek baino gehiagok bere dohaintzak egin nahi ditu bisita egitean, edo zurtzak hartzen dituzten zentroetan boluntario moduan lan egin.

NEGOZIO ZIKINA

«Oso negozio zikina da», Phoren arabera. Turistak erakartzeko amarru bihurtu dituzte adingabeak. Dolar batzuen truke irri tristea eskaintzen dutenak armada dira, nahiz eta horrela erabiltzen dituzten ustezko lau zurtzetako hiru ez diren egiatan umezurtz.

Goizeko hamaikak dira. Rashek ile lisoa du, beltza, kopetalea eskuin aldera duela. Eskua rekin agurtzen du bisitaria.



Ezpain lodiak ditu, irribarreari indar gehiago emateko. «Orain-txe iritsi naiz eskolatik», adierazi digu. Goizegi da eskolako lanak bukatuta edukitzeko, baina inguruan ez dugu inor gazteak esandakoa egia ote den ala ez baieztatzeko. 20 urterekin, bera da Lighthouse umezurtz-etxean bizi diren hogeiren bat mutiletako zaharrena. Phnom Penh hiriburua kanpoaldean dago zentroa.

Kanbodiako hiriburuan herri-tar guztiek ezagutzen dute Lighthouse. Hiriko kafetegi eta hotel askotan banatzen dute “Orphanage Tours” izeneko ekimenari buruzko propaganda: Phnom Penheko hospizio garrantzitsuenetara eramango zaituen ibilaldia. Bost zentro arratsalde bakar batean bisitatzeko aukera, 20 dolar ordainduz gero.

Bidaia hastean, *tuk-tuk* trizikloak gidatzen dituztenek turistei aditzera ematen diete arroz zaku bat, freskagarriak edo beste edozein elikagai erostea interesgarria dela, «umeei laguntzeko». Iruzur hutsa hori ere. Kasu gehienetan, turistik erositakoa ez zaie umezurtzei iritsiko, berehala establezimendura itzuliko baitituzte produktu guztiak. Normalean, dendaria, umezurtz-etxea eta gidaria bat egin da daude, bidaiariarekin negozioa egiteko.

ERREGISTRATUTAKO ETXEAK

2005az geroztik, Kanbodiara iristen den nazioarteko turismoak sekulako hazkunde izan zuenetik alegia (%250eko hazkunde aipatzen dute adituek), herrialdeko hospizio kopuruak ere gora egin du: %75 zehazki.

Gaur egun erregistratutako 225 umezurtz-etxe daude herrialdean, eta horiei ezkutuan lan egiten dutenak (erregistratu gabe) erantsiz gero, zenbakia izugarri igotzen da.

Zentro horietako arduradunek herrialdeko nekazaritza eremurik pobreenak bisitatzen dituzte egunero, beraien irri tristekoen armadarako kide berrien bila.

Adingabeko hautagaiaren etxekoei esaten diete umeari baldintzarik onenak eskainiko dizkiotela hiriburuan: etxe duin



Rash bezalako zurtzek turistek dohaintzak egin ditzaten nahi dute.

Pablo L. OROSA

bat, nahikoa janari eta hezkuntza egokia. Hiru herritarretik bik eguna pasatzeko bi dolar edo gutxiago baino ez dituen herrialdean (hamar milioi biztanle daude egoera horretan, hamabost milioi biztanleko Kanbodian), oso zaila da horrelako eskaintza bati ezezkoa ematea.

Baina behin hiriburura iristean, beren herrian agindutakoak Phnom Pehnen benetan zain dutenarekin zerikusirik ez duela konturatzen dira umeak. Instalazio zaharkituetan bizi behar izaten dute, janaria ez da inoiz nahikoa izaten eta irakasle lanak egiten atzerritik iritsitako gazte boluntarioak aritzen dira, aste gutxi batzuetara beren herrietara itzultzen direnak.

Azken urteotan Gobernuak tankerako umezurtz-etxe ugari itxi ditu, adingabeei arreta egokirik ez eskaintzeagatik. Handik egun gutxi batzuetara, ordea, izena eta kokalekua aldatu eta zentroak berriz lanean jartzen dituzte.

Hodeiek momentu batez eguzkia estali badute ere, Lighthouse umezurtz-etxeko haurrak zuhaitzen itzalpean dira. Jolas-toki nagusiko eserleku guztiak beteta dauzkate.

Ondokoak baino zaharragoa den neska batek sekulako esplikazioak ematen dizkie besteei, eta gazteenek arreta handiz entzuten dute hark esandakoa. Mutilak, berriz, baloi batekin jolasten ari dira hondarrezko eremu batean, kartoi puskak, plastikozko botilak eta kolore ugariako fruta hondakinak nagusi diren patioan.

Rash da anfitrioiia. Kotoizko barruko kamiseta zuri bat, prak beltzak eta berehala hautsez betetzen zaizkion sandaliak jantzita dago gaur. Ondo egiten du ingelesez, Lighthouse etxean dozenaka turistekin hizketan ordu asko pasa eta gero ikasi baitzuen.

Unicef Nazio Batuen agenziek eta Kanbodiako Gai Sozialerako Ministerioak egindako txosten baten arabera, tankerako zentroetan adingabeek esku hartzen dute instalazioei eta beren zaintzari eusteko diru bilketan: turistek argazkiak egin di-



tzaten posatzen dute kameren aurrean, gidari lanak egiten dituzte atzerritarrentzat eta *apsara* Kanbodiako erritmo tradizionala dantzatzan dute. Iluntzean, umezurtz horietako batzuk erdiguneko Riversidera bidaltzen dituzte bidaiarien mahaien artean eskean ibil daitezen, turista ugari elkartzen baita bertan Mekong ibaiaren brisa hezeaz gozatzuz garagardo hotza edateko. «7 urte besterik ez dituzten haurrek Pub Street zeharkatzen dute gaueko hamarretan karteltxo bat eskuetan dutela: ‘Mesedez, lagundu’. Propaganda banatzen dute eta instrumentuak jotzen dituzte. Taberna guztietatik pasatzen dira eta kasu askotan mozkor-mozkor egindako atzeritarrek hamar edo hogeita dolarreko billeteak ematen dizkiete», esan zien Unicefeko ikerlariei fenomenoaren ezaugarria zuten herritar batek.

«Hemendik, hemendik», esaten digu Rashek. Umezurtz-etxea osatzen duten blokeetako batera eramaten gaitu. Jangelak dira. Solairu bakarreko eraikin txikiak dira, patio nagusiaren inguruan kokatuta daude eta

horietako batean jende asko ikusten dugu. Egurrezko atea zabalik, janaria banatzen ari diren bi gazte ikusten ditugu. Beste batek plater zikinak jaso ditu. Kanpoaldean, leihoaren kontra jarrita, ume batek hatzak erabiltzen ditu lagunari keinu bat egiteko. Besteak arroz zuria darma jarleku batera. Bien artean hustuko dute platera.

Logelak metro batzuk gorago daude. «Neskenak aurrean daude, han», zehazten du Rashek. Gazteak hospizioko ohiuren berri ematen digu. Dena araututa dute: noiz ikasi, noiz jan, zertan jolastu, musika eta ingelesezko eskolak... «Orain bukatu egin dira ikastaroak, dohaintzarik ez baitugu jaso», onartu digu anfitrioiak. Izan ere, zentroa gainbeheran dago. Bere izen ona pikutara joan zen negozio hutsa dela zabaldu zenean, umeak behar bezala ez dituztela zaintzen jakin zen eta berria bidaiarien foro gehienetara iritsi zen. Bidaiarien bisita liburuak dohaintza bakarra erregistratu du azken astean. Alemaniako neska batek 25 dolar utzi zituen. «Gaur egun 60ren bat lagun gara he-

men, baina une honetan ikastetxean daude gehienak», esplikatu digu Rashek. Zentroan bertan ez dago zeregin handirik. Informatika gela itxita dago. Musika-koan, berriz, hautsak aspaldi estali zituen leihotik ikusten diren instrumentuak. Otordua amaitzean, adingabe batzuk berriz baloiarekin hasi dira. Atzeko patioan dagoen baratzeko freskuraren bila doaz beste asko.

BESTE EREDU BAT

Handik kilometro batzuetara bestelako eredu bat aurkitu dugu. Zurtzentzako Emirerrien etxean bizimodu errazagoa du-

Zurtzentzako Emirerrien etxean gastu guztiak komunitateak pagatzen ditu. Hospizioa sare publikoan sartuta dago eta inguruko ikastetxe batera joaten dira umeak.
Pablo L. OROSA

Gobernuak umezurtz-etxe ugari itxi ditu azken urteotan haurrei arreta egokia ez emateagatik. Egun gutxira, ordea, izena eta kokalekua aldatu eta zentroak berriz ere lanean jartzen dituzte

Iluntzean, umezurtz batzuk erdiguneko Riversidera bidaltzen dituzte bidaiarien mahaien artean eskean ibil daitezen, turista ugari elkartzen baitira garagardo hotza edateko

tela kontatu digu Ramsey 14 urteko umeak: «Guk ez dugu ezer ordaintzen, gastu guztiak komunitateak pagatzen ditu». 70en bat adingabe bizi diren zentroa kolektibo musulman batek finantzatzen du. «Gaur zaharrenek ez dira hemen, erdigunera joan baitira», esan digu. Instalazioetan badirudi gazteak ondo zaintzen dituztela, behar dituzten gauza eta arreta guztiak dituztela. Hospizioa sare publikoan sartuta dago eta inguruko ikastetxe batera joaten dira umeak. Garai batean zuriak izan ziren hormak garbi daude, nahiz eta ordena handirik ez dagoen. Hemen ez dago dohaintza erregistrorik. Ezta oroitzapenezko kamisetarik ere. Hemen umezurtzak baino ez daude. Dolar batzuen truke beren irribarre eman beharrik ez duten horietakoak.

PEDERASTEN BIKTIMA

Datu ofizialen arabera, Kanbodiak 550.000 zurtz ditu, haur guztien %8,8. Gehienak ez dira benetako zurtzak, gurasoetako bat gutxienez bizirik baitute. Etxe askotan, seme-alabak aurrera ateratzeko gauza ez direnez, harrera zentroen esku uztea erabakitzen dute. Edo iruzur egin beste helbururik ez duten bitartekarien esku. Legearen aurkako eremuetan aritzen diren erakundeek esku amaitzen dute askok. Pederasten harrapakin bihurtzen dira. Zentroen eta agintarien axolagabekeria lagun, sexu-harremanak haurrekin izan nahi dituzten gizonezkoen biktima. Unicefeko salatu duenez, «harrera zentroetan bizi diren haurrek besteek baino aukera gehiago dituzte abusuen biktima bihurtzeko».

2011n, Nick Griffin britainiarri bi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten. Siem Reap hiri turistikoan eraiki zuen hospizioko adingabeak bortxatzeagatik zigortu zuten. Sei urte lehenago iritsi zen Kanbodiara, garapen proiektu batzuk abian jartzera. Urte berean, pedofiliaren aurkako gobernu kanpoko erakunde bateko zuzendari ohi bat hiriburu zentro batean umeak bortxatzeagatik atxilotu zuten.



IKUSMIRA



AFP PHOTO

MOZAMBIKE (ETA AFRIKA) PIZTU ZUEN IRAULTZAILE APARTA

Joan den asteazkenean bete ziren 30 urte Samora Machel buruzagi mozambiketarraren heriotzatik. Oraindik ere argitu ez den hegazkin istripu batean zendu zen. Hegoafrikako gobernu arrazistak hegazkineko pilotu errusiarren akatsa izan zela esan zuen. Errusiarrek, baina, amu gisa nahita jarritako baliza batzuei egotzi zieten errua, pilotuak mendilerro batean lur hartzen saiatzera eraman zituen. Samora Machelen alargunak, gerora Nelson Mandelarekin ezkondu zen Graca Machelek, Hegoafrikako zerbitzu sekretuei egotzi zien ardura. Portugalدارren aurka bere herria askatzeraino borrokatu zen FRELIMO gerrillaren buru, Mozambique independenteko lehen presidente, aztarna sakona utzi zuen. Sozialista sutsua, lurra eta ondasunak nazionalizatu zituen. Bere etsai zuri (eta beltzek) ez zioten hori barkatu. Oliver Tambo eta Thomas Sankararen (urte bat geroago hil zuten) lagun min, Afrikako nazio askapen borroken laguntzaile fin, kontinentean barrena loratu zen mentalitate iraultzailearen hazia landatu zuen Samora Machelek.

Mikel Zubimendi

«Gobernuak eta baiezkoaren aldekoek ez zuten ‘B planik’ plebiszitua galtzekotan»

Aste honetan, Kolonbiako Gobernuak plebiszituaren ezetzaren alde bozkatu zutenen argudioak jaso ditu. Orain, negoziatzaileek Habanara eramango dituzte FARCEk balora ditzan. Alvaro Javier Riascos aholkulariaren hitzetan, urriaren 2ko plebiszituak mahai gainean hiru Kolonbia agerian utzi ditu, baiezkoarena, ezezkoarena eta gerrillarena. Egungo ziurgabetasun egoeraren arriskuaz ohartarazi du.

Urriaren 2an egindako plebiszituaren ezezkoak irabazi zuen oso boto gutxiko aldearekin. Emaita horrek zer nolako egoeran utzi du bake prozesua?

Erabateko ziurgabetasun egoera batean gaude. Gobernuak eta baiezkoaren alde egin zutenek ez zuten “B planik”. Eta ezezkoa eskatu zutenek ez zuten inolaz ere espero irabaziko zutenik. FARCEkoak linbo batean gelditu dira, izan ere, gerrillaren hamargarren konferentzian aho batez onartu zituzten Habanako akordioak eta alderdi edo mugimendu politiko bilakatzeko hautua egin zuten. Plebiszituak horren bideragarritasuna zalan-tzan jarri du.

Zerk eragin du ezezkoaren garaipena?


Hiriguneetan bizi diren kolonbiarrek ez dute gerra zuzenean pairatu eta, beraz, behin betiko su-etenarekin ez dute inolako aldaketarik nabaritu. Ez dira jabetu su-etenak ekarri dituen onurez. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar gerra propagandak duen eragina. Bost hamarkada luzeetan, FARC-EP egoeraren arduradun bakarra

ALVARO JAVIER RIASCOS

BAKEGINTZA AHOLKULARIA

Alvaro Javier Riascos aholkulariak gertutik ezagutzen du Kolonbiako bake prozesua. Urriaren 2ko plebiszituak bai prozesua bai Habanako Akordioa bera ere linbo batean utzi dituela uste du.

Uberka Bravo



Gaur

dela besterik ez dute entzun herritarrek hedabideetan eta agintarien ahotan. Gerrillariak eta horien buruzagiek zigorra eta gorrotoa besterik ez dituztela merezi etengabe botatako mezua izan da. Hainbeste urtetan gerrillariei buruz gauza txarrak besterik entzun ez dituztenean, ez da erraza orain herritarrei eskuzabaltasuna eskatzea. Horrez gain, gezurretan oinarrituta abiarazi zuten kanpainak gizartearen hainbat sektoretan oihartzun zabala izan zuen. Esaterako, gerrillari-
en birgizarteratzerako Gobernuak zergak igoko zituela

esan zuten ezezkoaren aldekoek. Habanako Akordioarekin Kolonbia Venezuelaren pareko herrialdea izango zela ere esan zuten. Argudio horiek aintzat hartzen baditugu, ulergarria da zergatik eman zuten ezezkoaren aldeko botoa 6,3 milioi kolonbiarrek.


Kolonbiarren %62k ez zuten bozkatu. Zergatik?

Batetik, herritarrak ez dira lider politikoez zein gobernuaz fio. Bestetik, prozesu politikoek ez dute herritarren gehien-goaren interesa pizten, inoiz ez baitute sakoneko eraldake-

”

«Uribek gizartearen zati handi bat ordezkatzeko du. Uriberik gabe ezinezkoa izango da bake iraunkor bat lortzea»

«Prozesu politikoek ez dute herritarren gehiengoaren interesa pizten, ez baitute sakoneko eraldaketarik eragiten eguneroko bizitzari dagokionez»



Efraín HERRERA | AFP

tarik eragiten eguneroko bizitzari dagokionez. Eta gerra pairatu ez dutenei ez zaizkie axola bake prozesuak. Arrazoi horiek daude ezezkoak irabazi izanaren oinarrian.

Alvaro Uribe presidente ohiak FARCEkin sinatutako akordioa gerrillarekin, batetik bat justiziaren arloan, eskuzabalegia dela adierazi du. Zer deritzozu?

Zentro Demokratikoak ez du inoiz negoziazio politikoa gatazka armatuaren konponbide gisa ikusi. FARC garaitzea besterik ez dute nahi, gerrillaren errendizioa alegia. Zentzu horretan, edozein kontzesio amore ematea bezala ikusten dute.

FARCEko negoziazio ardura-dun Ivan Marquezek Uribe «diskordioaren buruzagia» dela eta berak akordioetan esku hartzea kezkarria dela ohartarazi du. Presidente ohiak nolabaiteko protagonismoa izan behar al du momentu honetan?

Noski baietz, Uribek gizartearen zati handi bat ordezkatzeko baitu. Uriberen ideologiarekin eta gatazkaren konponketaren inguruan duen jarrerarekin bat egiten du jende batek. Uriberik gabe ezinezkoa izango da bake iraunkor bat lortzea.

Juan Manuel Santos presidenteak bi aldeetako su-etena abenduaren 31ra bitarte luzatu du. Bake prozesuaren

etorkizunarekin kezkatuta egoteko arrazoiak ba al daude zure ustez?

Egon badaude. Habanako Akordioak Kolonbiak dituen arazo larrienak jasotzen ditu: lurra- ren jabetza, landa gunee- tan bi- zi den egoera latza, parte har- tze politikoa, legez kanpoko laborantza, biolentziaren itur- burua... Ez hori bakarrik, arazo horiekin amaitzeko neurriak ere proposatzen ditu. Inozoa da pentsatzea krisialdi egoera honetatik ateratzeko nahikoa izango dela han eta hemen al- daketa txiki batzuk egitea- kin. Jada ez da nahikoa Santo- sek ordezkatzeko duen Kolonbia FARCEk ordezkatzeko duenare- kin ados jartzea. Mahai gaine- an hiru Kolonbia ditugu orain

gutxienez eta horrek elkarri- zketek porrot egiteko arriskua biderkatu egiten du.

Su-etena eta armagabetze prozesua egiaztatze- ko bat- zordea lanean ari zen dago- neko plebisituaren aurretik. FARCEko, Gobernu- ko eta Na- zio Batuetako begiraleek prestaketa lanak hasita zi- tuzten. Zer egoeratan geratu da uneotan Nazio Batuek hartutako konpromisoa?

Bada, linbo batean. Ban Ki- mo- on Nazio Batuetako idazkari nagusiak egiaztapen batzordea mantenduko dutela plazaratu du, baina kronograma zehatz bat eskatu du. Begiraleak ez di- rela denbora mugagabe- an gel- dituko ohartarazi du.



Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Atxikimenduari buruz

Atxikimendua gizabanakoren eta bere zaintzailearen arteko lotura afektiboari deitzen zaio. Bi helduen artean elkarrenganako lotura izan daitekeen bitartean, haur eta heldu baten arteko harremanean lehenengoaren segurtasun eta babes beharretan oinarritzen da.

Atxikimenduaren Teoriak epe luzerako eraikitzen diren giza harremanen dinamika deskribatzen du. Jaioberriek beren garapen soziala eta emozionala gara dezaten, gutxienez, zaindari nagusiaren papera egiten duenarekin harreman sendoa garatzeko beharra dute. Jaioberriak harremanetan sentiberak eta harberak dira, eta, hala, sei hilabete eta bi urte bitartean, haurrek zaindari egonkor bezala dituzten helduekiko atxikimendua garatzen dute. Txikia, katuka edo oinez hasten denean, atxikimendu irudiok erabiltzen hasiko da leku segurua bailiran, ingurua esploratu ahal izateko, eta, beharrezkoa duenean, berriz ere, beraingana bueltatzeko.

Gaur egun oraindik ere indarrean den teoria horren sortzaileak J. Bowlby eta M. Ainsworth psikologoak izan ziren. Gurasoen (batez ere amen) eta beraien seme alaben arteko harremana behatu eta ateratako ondorioetatik, Atxikimenduaren Teoria osatu eta garatu zuten. Haurrek, bizirauteko helburuarekin, zaintzen dituzten pertsonetikiko atxikimendua garatzen dute instintiboki; eta orduan, fisikoki, sozialki eta emozionalki garatzeko aukera dute. Teoriaren barnean, helduaroan ere eragiten gaituzten hiru atxikimendu eredu bereizten dira, zaintzaile nagusiaren eta haurraren arteko lotura afektiboaren ezaugarrien arabera. Lehenik “atxikimendu ziurra” dugu; honetan, zaintzailea, haurraren deiekiko sentikorra da, negar egiten duenean edo begiradarekin bilatzen duenean eskuragarri baitago. Horrek haurrak bere ingurua lasai esploratzea ahalbidetzen du. Bigarrenik, “atxikimendu ez ziur eta iheskorra” dago. Zaintzailearen irudia aurreko eredu bezain presente ez egoteaz gain, zaintzaileak ez ditu haurraren deiak eta kontaktu eskaerak aintzat hartzen, ba-

tzuetan arbuia ere egiten dituelarik. Eredu honekin hazitako haurrek ez dute zaintzarik espero (izaten ez dutelako), eta, beraz, zaintzailearekiko ezaxolakeria erakusten dute, frustrazioen aurka defentsa moduan. Hirugarrenik, “atxikimendu ez ziur eta anbibalentea” dago. Hemen, zaintzaileek (konturatu gabe askotan) haurren beharrei kasu egiten diete batzuetan, baina, beste batzuetan, ordea, ez. Jokabide horrek zaintzailearen eskuragarritasunarekiko segurtasun falta sentitzera eramaten du haurra, zaintza behar duenean, ez baita ki helduaren laguntza izango duen.

Gure atxikimendu irudiek gure identitatearen eta autoestimua oinarria eratzen dute. Hori dela eta, jaso dugun atxikimendu irudia funtsezkoa izango da gure bizitzan sortuko ditugun harremanak eraikitzeko. Horrekin esan nahi dudana zera da: helduaroan sortzen ditugun harremanak eta gure buruarekiko dugun ikuskera, neurri handi batean, bi urte bete arte gure zaintzaileengandik jaso dugun atxikimendu ereduak baldintzatuta egongo da. Horrela, adibidez, jasotako

atxikimendu ereduak bikote harreman batean eragina izango du. Eredu ziurra jaso duenak bere buruarekiko, bikotekidearekiko eta harremanekiko begirada positiboagoa izateko joera izango du. Eredu ez ziur eta iheskorra bizi izan duenak, bikotearekiko atxikimendua arbuia du, sentimenduak errepresmituz. Azkenik, eredu ez ziur eta anbibalentea jaso duenak, bere burua mesprezatzear gain, bikotekideenganako mesfidantza sentituko du.

Apika, zuetako batzuek, aurreko esaldiak irakurri ostean, ereduarekin identifikatuko zenuten zuen burua. Agian konforme zaudete zaintzaileengandik jasotako ereduarekin eta honek gainontzeko harremanetan eta zuen identitatean izandako eraginarekin. Beharbada ez duzue ezer aldatu nahi, baina, beharbada, bai. Jakin ezazue hortaz, ereduak alda daitezkeela, gure zaintzaileengandik oinordetzan jaso duguna transforma dezakegula, baita gure oinordekoei igorritako ondarea ere. Zertarako eta gure harremanek oro har bakea ekar dezaten eta ez borroka. •

saioaaginako@gmail.com



Jaso dugun atxikimendu ereduak eragin du gure bikote harremanetan.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Bi bide orri eta erabaki estrategiko bat

Ostegunean bost urte bete ziren ETak borroka armatua behin betiko utzi zuenetik, Aieteko Konferentziak plazaratutako gomendioei erantzunez. Bost urte igaro eta gero, esan dezakegu, alde batetik, erabaki hark aldaketa handia ekarri zuela egoera politikoan, eta, beste batetik, egoera aldaketa hark eskaintzen zituen aukera guztiak ez direla aprobetxatu, ez dela behar beste aurreratu; urteok erakutsi dutenez, bakarren batzuei ez zaie-lako agertoki demokratikoetan aritzea komeni, nahiago dutelako gatazkaren traba eta karraka.

Gertaera historiko hura ekarri zuten mugimendu eta lanen berri tantaka izan genuen hasieran, eta liburuak ere idatzi dira azkenaldian. Oraindik, halere, ardatz nagusiak behar bezala azaltzeko denbora igaro beharko da.

Azken batean, Aieteko Konferentzia ez zen bat-batean sortu, eta, jakina, ETak ez lioke dei hari hiru egunetan erantzungo alde zuretik urratsak hitzartuta ez baleude. Aieten bide orri bat aurkeztu zen bezalaxe, Aietera iristeko eta haren ondotik urratsak gertatzeko ezkutuko beste bide orri zehatzago eta zabalago bat izan bazela badakigu gaur egun. ETarekin eta Espainiako Gobernuarekin, ba-koitza bere aldetik, adostu zuten nazioarteko eragileek. Bi bide orri, beraz, bat publikoa eta orokorra, bestea ezkutukoa eta zehaztasun handikoa.

Horrela uler daiteke, esate baterako, Aiete gertatu eta berehala ETako ordezkari bat Norvegiar egotea, elkarriketak hasteko zain. Zalantza bakarra hauxe: borroka armatua albo batera uzten zuela iragarritzeko egindako bideoa zabaltzeko unean, urriaren 20ko hartan, ordezkari bat hori jada Oslon ote zegoen edo, oraindik, bidean ote zen. Zalantzarik ez duena hauxe: Norvegiako Gobernuak ez zuen halako ordezkari bat bertan egotea onartuko Espainiako Gobernuaren oniritzirik gabe. Beraz, nazioarteko eragileek bi aldeekin adostu zuten ezkutuko bide orria.

BATZUEK HITZA BETE; BESTEEK HITZA JAN, JAN ETA JAN

Aiete egiteko konpromisoa hartu zutenek hitza bete zuten, nahiz eta Egiurenek arrastaka eta mezu eskasa zabalduz eraman behar izan zuen bere alderdia bertara. Beraz, bete zuten hitza nazioarteko eragileek, inplikazio handia izanez eta, ETak urratsa eman ondoren, erakunde-

aren delegazioa Oslon kokatzea ahalbidetuz. Hortxe hasi ziren beste batzuk hitza jaten, jaten eta jaten. Zapaterok ordezkari bat bidali behar zuen Norvegiara, baina ez zuen egin. Hauteskundeak bertan ziren, eta Rajoyri zegokiola gaiari jarraitzea ebatzi zuen. Bazuen bere logika, gobernuaren amaiera hain hurbil izanda, baina ez zeukan lotuta, Estatu itun baten bidez, hurrengoaren jokabidea.

Berez, Rajoyk atzerapauso denak iragarrita zituen, besteak beste, ilegalizazioei berriro ekitea. Bilduk hilabete gutxi batzuk lehenago lortu zuen hauteskundeetara aurkeztea. Aietekoak, nolabait, PPren inboluzioa geldiarazi zuen, baina ez zuen haren posizioa bide orria betearazteko bezainbeste baldintzatu.

Rajoyren Gobernuak berehala jakin zuen ETako ordezkari bat zuela Oslon zain. Hala esan zioten Zapaterok, nazioarteko eragileek eta Norvegiako Gobernuak berak. Ez zuen ezer esan, ez «ez» ez «bai». Urtebete baino gehiago egon zen ETA Oslon, 2013ko otsailera bitarte, eta une batean bitartekari bat ere azaldu zen Gobernuaren izenean, berriro bueltatu ez bazen ere. Antza, Rajoyk erabakia hartu zuen: *impasse* eta blokeotik boikot politikara pasatzea. Une horretan atera behar izan zuen Norvegiatik ETako ordezkariak.

Kontakizun honen arabera, ETak borroka armatua utzi izana bi bide orri horien (Aietekoa eta ezkutuan kudeatutakoa) ondorio da. Irakurketa hori egitea ez litzateke zuzena izango. Egia da horien bidez eta, ahal zen neurrian, konponbide eskema bat egituratzeko egin zituela urratsak, baina estrategia politiko-militarra gainditzeko erabakia beste nonbaitetik zetorren, hain zuzen ere, ezker abertzaleak egindako eztabaidatik eta bertan erabakitako aldaketa sakonetik, «askapen prozesuaren» nolakotasunari zuzenean eragiten ziona.

Horrek eragina izan beharko zuen blokeoen aurrean hartu beharreko jarreran ere. Aurreko saioetan (Alger eta Lizarra-Garazi), bide orria bete ez izanak prozesuaren haustura eta borroka armatuaren buelta ekarri zituen. Oraingoan, ordea, lehentasuna –azkenekoz “Abian” prozesuan ezker abertzaleak ebatzi duenez– estrategia aldaketan sakontzean eta bertatik bertara prozesu politikoa indartzean datza. Bai, orain dela bost urtekoa erabaki estrategiko bat izan zen. •

Estrategia politiko-militarra gainditzeko erabakia ezker abertzaleak egindako eztabaidatik zetorren eta «askapen prozesuaren» nolakotasunari zuzenean eragiten zion

EMAKUMEA ETA ERREPRESIOA

Gerraren atzeguardian, borreroaren aurpegi latzenak ikusi ditu emakumeak

Lau hanketan jarrarazi ninduten eta inguratu egin ninduten. Ipurtzuloan gel moduko likido hotz bat eman zidaten, euretako baten zakila ukitzera behartu ninduten bitartean. Iraindu eta mehatxatu egin ninduten, bortxaz».

«Ondoko ziegan nire neskalguna zegoela esan zidaten eta nire erruz hark jasango zituela bortxaketak».

«Juana Josefa Goñi eta haren sei seme-alaben gorpuzkinak aurkitzeko lanak bukatu ditu Aranzadik Gaztelun. Emakumea eta desberdina zen. Sorginkeria ere leporatzen zioten. Gerra zibilaren testuingurua baliatu zuten leize hartara botatzeko bere seme-alabekin».

«Maravillas Lamberto Yoldi, 14 urteko larragarra, bere aitarekin batera eraman zuten falangistek. Berak eskatu zien eramateko, aitarekin joan nahi zuela. Aita fusilatu egin zuten. Maravillas bortizki behin eta berriro bortxatu eta akabatu egin zuten, eta zakurrei eman jateko».

«Alargun, militante, gudari, iheslari, alaba, emakume. Zer dago horren guztiaren atzean?

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

1936ko gerran fronteko bigarren lerroa bidali zuten emakumea, atzeguardiara. Bigarren lerroko sufrimendua, baina, ez zen bigarren mailakoa izan, errepresio politikoak aurpegi propioak baititu emakumearentzat; bortxaketak, miseria, zaintzaren karga, isilpeko dolua, ahots politikoa ukatzea... Lehen lerroa ekarri beharreko kontakizuna.

Zer berezitasun du emakumeenganako bortxak eta errepresio politikoak?».

Pasarte eta galdera horiek mahai gainean jarrita abiatu zuen Jon Maiak “1936-2016, emakumeengan izandako errepresioaren berezitasunak” izenburudun hitzaldia, joan den asteazken Azpeitian izandako UEUren jardunaldien baitan. “Bakea gugandik eraikitzen. Egia, justizia, erreparazioa eta berriro ez errepikatzeko bermea” jardunaldiak gerra eta bakea ertz desberdinetatik begiratu dituzte, tartean errepresioak emakumea nola zapaldu duen jasotzen duen begirada gordina.

Lourdes Herrasti Geografia eta Historian lizentziatua da, Aranzadi zientzia elkarteko ikertzailea eta ostearkeologian espezializatua. Kontatzen ez den historiaren kontaketa egin zuen, urte asko baitaramatza lur azpitik berreskuratutako hezurrek kontatzen dutena ikertzen. Apaldutako ahotsen hezurak dira, indarrez isilaraziak. Eta emakumeen kasuan, are zapalduagoak. Ez baita askotan kontatzen gerran bigarren lerroan dagoenak egiten duena eta sufritzen duena. Emakumea, nagusiki, bigarren lerroa apartatua izan da gerran, baina bere sufrimendua lehen lerrokoa izan da. Latza.

Errepublikak emakume aurpegia zuen. Beheko irudian, Eibarren Errepublika aldarrikatu zuten eguneko irudia. Emakumeak ordura arte ez zeukan protagonismo politikoa lortu zuen Errepublikarekin. SALAMANCAKO ARTXIBOA

Errepublikak emakume aurpegia izan zuen. Errepublikak aldarrikatu zuen, lehen aldiz, emakumeen bozkatzeko eskubidea eta sexuen arteko bereizketa zalantzan jartzen hasi zen. Garai hartan analfabetismo handia zegoen, nabarmenagoa emakumeen artean, baina ordura arte emakumeak izandako tokia eta egitekoa zeozer mugitzen hasi zen.

POLITIKAN PARTE HARTZEN HASTEAK

Emakumea beti zegoen bigarren lerroan; beti zen norbaiten alaba, norbaiten emaztea edo norbaiten ama eta ezin zituen erabaki propioak hartu. Aitaren mende, senarraren mende edota, alargun geratuz gero, semearen mende zegoen. Baina Bigarren Errepublikan emakumeak politikan sartzen hasi ziren, ezkerretik zein eskuinetik. Clara Campoamor, Victoria Kent eta Margarita Nelken izan ziren Estatu espainolean politikaren lehen lerroa iritsitako lehen emakumeak.

1931ko Errepublika iritsi zenean, emakumeek hautetsi izateko aukera zuten, baina ez botoa emateko. Bi urte geroago, Autonomia Estatutuari buruzko erreferendumean, lehenengo aldiz



botatu zuten 23 urtetik gorako euskal emakumeek. Geroago etorri ziren hauteskunde orokorrak.

«Garaiko gizartea oso erlijio-soa zen, Elizarekiko mendekotasun handia zegoen eta emakumeen kasuan nabarmenagoa zen pisu eta zapalketa hori. Horregatik segur aski emaitzek eskuinerantz egin zuten, garaiko emakumeak kontserbadoreagoak zirela esaten baita», nabarmendu zuen Aranzadiko iker-tzaileak.

1936an, berriz botoa emateko garaia iritsi zenean, foku guztiak emakumearengan jarri ziren. Boto-emailea zen eta kanpaina guztien erdigunean jarri zuten, hauteskunderen balantzak alde batera edo bestera egitea, neurri handi batean, emakumeen botoetan baitzegoen.

Politikaren lehen lerro horretatik aparte, emakumeak mugitzen eta antolatzen hasiak ziren jada. AMA elkarteak sortu ziren –Agrupacion de Mujeres Antifascistas– eta horietan lan handia egin zen. Euskal Herrian, Emakume Abertzaleen Batza ere lanean ari zen, EAJren inguruan.

Parte hartze politikoak, baina, bazuen bere kostua. Horren adibideetako bat da Evarista Sasianbarrenarena. Emakume Abertzale Batzaren idazkaria zen Amasa-Villabonan. Alkateak Espainiako bandera zintzilikario gisa jartzea agindu zuen eta Sasianbarrenak uko egin zion aginduari. Atxilotua eta zigortua izan zen, «*individua roja separatista*» omen zelako. Eta zigor modura espainiar bandera eskuetan zuela herriko kaleetan barna ibilarazi zuten bueltaka.

Eskuin aldeko alderdietan ere baziren emakumeak. Margarita izeneko talde karlistak kasu. Eta falangistak ere baziren.

LEHEN LERROTIK APARTATUAK

1936ko uztailean gerra lehertu egin zen, gizartea erdibitu eta sufrimendua bazterretan zabaldu. Faxisten kontrako mobilizazioak izan ziren han eta hemen eta emakumeek zein gizonek parte hartu zuten horietan. «Zenbait argazkitan garbi ikusten dira emakumeak, buzoa jan-

tzita eta fusila eskuan hartuta, manifestazioetan parte hartzen. Baina garbi esan behar dugu emakumeak frontearen lehen lerrotik erretiratzera behartu zituztela. Zergatik? Ba, nonbait, soldaduak 'distrailu' egiten zituztelako. Oso esanguratsua da hori, garbi adierazten duelako garaiko gizartean nola ikusten zen emakumea, zein irudi zegoen bere inguruan», esan du Lourdes Herrastik.

Emakumeen kontrako erasoak gerrako arma estrategiko izan dira aspaldidanik eta hala izaten segitzen dute. Horren adibide garbia dira Herrastik bere hitzaldian gogora ekarritako hitzok. Queipo de Llano jeneral faxistak 1936ko uztailean Radio Sevillan ondorengoa esan zuen: «*Nuestros valientes legionarios y regulares han enseñado a los rojos lo que es ser hombre. De paso*

Ezkerreko irudian, Lourdes Herrasti, Geografia eta Historian lizentziatua, Aranzadi zientzia elkarteiko ikertzailea eta osteoarkeologian espezializatua. Alboan, Estatutuari buruzko erreferendumeko kartela, zuzenean emakumeari zuzendua.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS
GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA



también a las mujeres de los rojos que ahora, por fin, han conocido hombre de verdad y no cas-trados milicianos. Dar patadas y berrear no las salvará».

Emakumea «distrailuzeko» eta «entretenezeko» objektu bezala ikusia zen. Eta gerrak prostituzioa zabaldu zuen bazterretan. Eta prostituzioarekin batera, se-

xu bidez kutsatzen diren gaixotasunak. Soldadu asko kutsatu ziren eta emakumeak «etsaiaren balak baino arriskutsuagoak» zirela ohartarazten zuten kartel gordinak jarri zituzten kaleetan.

Aipatu bezala, emakumeak fronteko lehen lerrotik apartatu zituzten eta atzeguardiako la-


«Emakumeak frontearen lehen lerrotik erretiratzera behartu zituzten. Zergatik? Ba, nonbait, soldaduak 'distrailu' egiten zituztelako. Oso esanguratsua da hori»

«Nuestros valientes legionarios han enseñado a los rojos lo que es ser hombre. De paso también a las mujeres de los rojos que ahora, por fin, han conocido hombre de verdad»



Alboko irudian, Aranzadikoe frankismo garaiko hobi komun baten aurkitutako apain-orrizia. Objektuek pista garrantzitsuak ematen dituzte. Lerroon azpian, lau emakume ilea moztuta Oropesan (Toledo), eta, beheiago, Lasarte-Orian gerra garaian ateratako argazkia. Emakume bat, tortilla bat eskuan, soldadu kuadrilla batekin. Atzeguardian hornikuntza lan garrantzitsua egin zuten emakumeek.

Aranzadiko Antropologia Departamentua



nak egin behar izan zituzten. «Atzeguardian erizain lanetan lan izugarria egin zuten emakumeek, zaurituak artatuz. Alde batekoak zein bestekoak aritu ziren lan horietan. Soldaduen hornikuntzaz ere arduratzen ziren. Bada argazki oso polita, Lasarte-Orian ateratakoa. Soldaduz inguratutako emakume bat ikusten da bertan, tortilla bat eskuetan hartuta. Atzeko lan hori guztia emakumeek egin zuten», esan du historialariak.

Gerran atzeguardiako lana gutxi ez eta etxe bueltan soldadu joandako gizonen egin ezin zituzten lanak ere beren gain hartu behar izan zituzten emakumeek. Gerra uztailean leheritu zen, juxtu uzta biltzeko garaian. Eta bai edo bai uzta jaso beharra zegoen, urte guztiko lana alferrik gal ez zedin. Uzta jasotzen, arrantzan, garbitzen, soldaduen jantziak josten, soldaduei jaten ematen, seme-alaben zaintzan, miseria kudeatzen... Frontearen bigarren lerroan egiteko asko zegoen, ikusten eta baloratzen ez ziren egitekoak gainera.

DOLUAREN KARGA, ISILPEAN

Gerra garaian, emakumeen bazuten beste karga bat: dolua. Gizonzkoie, fusilatu aurretik, eskutitz bat idazteko aukera eskaintzen zieten eta eskutitz hori normalean emakume bati zuzendua egoten zen, amari edo emazteari. «*Madre, hoy me van a fusilar*»; «*Querida esposa, hoy me van a fusilar*», hasten ziren horietako asko. Oso agur hunkigarriak izaten ziren. Eta heriotza bortitz horien karga, dolu latz horren karga, emakumeak eramaten zuen gainean, isilpean gainera. «Dolua, isiltasuna, sufrimendua, familia aurrera eramane beharra, miseria gorria... Gizonak eramaten zituzten erailtzera, baina emakumeen sufrimendua latza eta isila zen».

Zeharkako erasoak ez ezik, emakumeen kontrako eraso zuzenak ere asko izan ziren. Herri askotan, esaterako, ilea larru arras moztu zieten emakumeei. Gerora, gainera, Estatu espainolean sortutako ohitura bortitz

hori European barna zabaldu zen, Auschwitz bertaraino.

«Herri askotan moztu zieten ilea emakumeei, baina apenas dagoen argazkirik. Esanguratsuen eta ezagunen Oropesan (Toledo) ateratako bat da. Lau emakume agertzen dira bertan, ilea moztuta. Argazki hori gugana iritsi da argazkilari ingeles batek atera zuelako. Segur aski beste inori ez zioten utziko argazkia ateratzen, oso umiliagarria zelako, baina, atzerritarra zenez, argazkia ateratzen utzi zioten», azaldu du Herrastik.

BORTXAKETAREN ARRASTO LAUSOA

Bortxaketa, zalantzarik gabe, gerrako arma izan da beti. Eta bortxaketa asko eta asko gertatu zirela jakin arren, zaila da horien testigantzak eta arrastoak biltzea. «Emakume asko atxilotu eta bortxatu zituzten. Ez bakarrik emakume horien kontra egiteko, baita zeharka gizonen kontra eta komunitatearen kontra egiteko ere».

Bortxaketen inguruko testigantza gutxi daude. Sufrimenduen ikono bihurtu den Larraigako Maravillas Lamberto Yoldi 14 urteko neskatoaren kasua da ezagunenetakoa. Aitaren bila etorri ziren, baina Maravillas ez zen fio aitarekin zer egingo zuten, eta berarekin joan nahi zuela esan zien guardia zibilei. Behin eta berriro bortxatu zuten eta zakurrei eman zieten bere gorputza, jan zezaten. Ondoren erre egin zuten faxistek, egindako basakeriaren arrastoak ezabatzeko.

Elgetako Antxoni Telleriak, Sosota baserrikoak, gertatu eta 66 urtera kontatu zuen lehen aldiz 1937ko apirilaren 24an bere baserrian ikusi eta jasan zituen krimenak. Intxorta 1937 elkarteko kideei kontatu zizkien bizitza osoa urratu zizkioten gertakariak: «Goizeko hiruretan ezezagun batzuk baserrira etorri ziren; beltz-beltzak ez ziren, gure aldean pixka bat tostatuak, erdaraz ondo moldatzen ziren. Nire iritzia da kanpotar haiek horrelako orduetan bakarrik ezin zutela baserria aurkitu, herrikoek lagunduta etorri zirela. Eztabaida sortu zen ia bortxatu edo

Maravillas, maravillas
 Florecica de Larraga
 Amapola del camino
 Te seguiré donde vayas

Maravillas
 Larragako loretxoa

ARDARAZ VITA
 EL DUAYEN VILLERAS
 EL DUAYEN LOSARCO
 EL DUAYEN LOSARCO
 EL RRIO TABAR V
 FERNANDEZ M
 FOLIO BARBA
 GARCIA G
 GARCIA G
 GARCIA G
 GARCIA G
 GARCIA G



EXPRAI

iRRITZIA:

BARKATU, DYLAN JAUNA...
BAINA AZKEN MOMENTUAN ERABAKI DUGU
LITERATURAKO NOBEL SARIA
SORMENERAKO BENETAKO GAITASUNA
ADIERAZI DUEN NORBAITI EMATEA.

GEHIEN BAT
BERTSIO OFIZIALA
DEITUTAKO AZPIGENEROARI
EMANDAKO DIMENTSIO
BERRIAGATIK.

ULERTUKO
DUZULAKOAN
GAUDE.



ZUHATZUKO BAINUETXEA

Ekotarriko kooperatiba ezarri da Zuhatzu Kuartangoko bainuetxearen eraikinean

Bisitariak eraiki erraldoi bat ikusten dute Zuhatzu Kuartangora helterakoan. Udal-letxearen ondoran dago, eta 6.000 metro karratuko area du. Gaur egun zaila da pentsatzea zer-nolako historia gordetzen duen harriz eta adreiluz egindako eraikin erraldoiak, pasa den mendean bainuetxe famatua zena. Zuhatzu Kuartangoko bainuetxearen historia 1870eko hamarkadan hasi zen, Emilio Chillidak Iturri Beltzetik ateratzen ziren urak zientifikoki ustiatzeko elkarte bat sortzea proposatu zuenean. Izan ere, uztez, Baia ibaiaren ezkerreko bazterrean kokaturik zegoen iturriko urek propietate sendagarriak zituzten. Uren mineralizazioa handia da eta bere konposizioan nagusi dira sufrea eta sodioa; karea duten gatzen

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

Pasa den mendearen hasieran ospetsua zen Zuhatzu Kuartangoko bainuetxea, 1950eko hamarkadan eskola eta apaizgaitegi bilakatu zena. Egun enpresa berriak ezarri dira eraikinean, eta horietako bat da Ekotarriko, Maitane Beltran de Guevarak eta bere amak sortutako kooperatiba. Kontserba ekologikoak egiten dituzte.

edukia, aldiz, urria da, eta nitrogeno ugari askatze dute ur horiek. Hori guztia dela eta, urok sufretsu, sodiko eta nitrogenatu gisa sailkatu izan dira.

1879an egun existitzen ez den etxe batean bainuetxe bat sortu zen, eta 1882an Zuhatzuko Bainuetxearen Elkartea eratu zen. Bainuetxeari esker, hainbat zerbitzu sortu ziren

Gasteiztik 30 kilometrora dagoen herrixkan. Tren geltoki bat zabaldu zuen eta iturburuko ura onura publikokoa zela adierazi zuten. Estatu eta nazioarteko erakusketetan uron onurak azaltzen ziren, izan ere, arnas aparatuaren gaixotasunak sendatzeko balio zutela esaten zen. Ondorengo urtetan ostatuak ireki ziren, baina ez

ziren Zuhatzu Kuartangora heltzen ziren bisitari ugariak hartzeko nahikoa. Beharrezkoa zen elkarte berri bat sortzea hotel handi bat eraikitzeko. Hotelak ezaugarri bereizgarriak izan behar zituen, gela zabal eta erosoak.

Erakin nagusiaren ondoren dauden karteletan azaltzen den bezala, bainuetxeko era-biltzaileak «oso sozialak» ziren, bai egunez bai gauez zer egin izan behar zutenak. Eta bainuetxera joaten ziren bezero asko ez zeuden gaixorik. Faktore ezberdinak tarteko joaten ziren bainuetxera. Faktore horietako batzuk, esate baterako, trenbidearen hobekuntza, udako oporren fenomenoaren agerpena eta hidroterapiako instalazioen egokitzapena eta eraberritzea izan ziren. Faktore horiei esker Zuhatzu Kuartangoko bainuetxeak bere garairik onena bizi izan zuen. Izan ere,

Bainuetxea Zuhatzu Kuartangon dago, haranaren erdian.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS





bezeroentzat oso erakargarriak izan ziren hidroterapiako instalazioen zabalkuntza –eraikin berri bat egin zuten– eta tratamenduak aplikatzeko tekniken hobekuntza –inhalazioa, lainoztatzea, lurruneztapena, dutxak eta bainuak–.

Halaber, beharrezkoa izan zen eraikuntza berri batzuk eraikitzea, non bezeroek, behin erlaxaturik, dibertitzeko eta askotariko jarduerak egiteko aukera izan zezaketen. Hotelak bere zerbitzuak egokitu eta zabaldu zituen bainulari kopurua handitu eta egonkortzea ahalbidetuko zuten jarduera erakargarriak eskaintzeko helburuarekin. Hartara, eraikuntza berrian billarrak, solasaldietarako aretoa eta jatetxe handia topa zezaketen bezeroek. Eta berrikuntza garrantzitsuenetako bat argi elektrikoa izan zen. Horri guztiari esker, hotela 300 bezero hartzera heldu zen, XX. mendeko lehen hamarkadetan bisitari ugari ja-

Elikagai ekologikoak erabiltzen dituzte kontserbak egiteko.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

soz. Pentsa, urtero 1.000 bisitari baino gehiago hartzera heldu zen bainuetxea, horietako %95 baino gehiagok arnasbideentzako tratamenduak jasozituztelarik.

Baina garai onek ez zuten asko iraun. 1950eko hamarkadaren erdialdera bainuetxea fraide salestarrek erosi zuten. Fraideek egindako barneko eta kanpoko berrikuntzek guztiz itxuraldatu zuten eraikina, eta ordutik aurrera ez da erraza hasiera batean zertarako erabiltzen zen imajinatzea bera ere. Eraikina mutilentzako barne-tegi eta ordenako apaizgaitegi gisa erabili zuten 1970eko hamarkadaren amaiera arte. Ordutik, eraikina Kuartangoko Udalarena da. Hainbat zerbitzu publiko eskaini izan dira bertan, eta eztabaida sakona egon da herrian bainuetxearen etorkizunari buruz. 2013an Kuartango Bizirik elkarteak sortu zen. Elkarteko kideek eraikinarekin lagapena aldarrikatu zu-

ten, etxebizitzak, ekipamendu berriak eta gune produktiboak sortzeko. Azken aukera horrek aurrera egin du, eta Udal Gobernuak, EAJren esku dagoenak, enpresa berriei ireki dizkie bainuetxearen ateak.

EKOTARRIKO KOOPERATIBA

Horietako bat da Ekotarriko, Maitane Beltran de Guevarak eta bera amak, Zuriñe Vigalodok, martxan jarritako kooperatiba. Jatetxe bat zuten lehen Etxabarri Ibiñan, eta orain kontserba ekologikoak ekoiztea erabaki dute. «Ondo prestatzen genuen janaria, eta bezeroek goxoa zegoela esaten ziguten. Horregatik urrats bat ematea erabaki eta enpresa martxan jarri genuen. Orain iraupen luzeko janari kozinatua salduko dugu», azaldu du. Dena den, Ekotarriko martxan jartzea ez zen erreza izan. Ideia duela hiru urte sortu zen, eta Gasteizen jarri nahi zuten hasiera batean lantegia.

ERAIKINAREN AURREALDEA BERRITZEKO OBREN LIZITAZIOA

Pasa den astean argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean Zuhatzu Kuartangoko bainuetxearen aurrealdea zaharberritzeko obren lizitazioa. Kuartangoko alkate Eduardo Fernandez de Pinedok sinatutako agirian azaltzen denez, irailaren 26an egindako ohiko bilkuran onartu zen klausula juridiko eta ekonomiko-administratibo berezien eta teknikoen agiria, obrak kontratazeko lehiaketa publikoa arautuko duena.

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean azaltzen denez, lizitazioaren oinarria 214.049,74 eurokoa izango da. Kantitate horri 44.950,45 euroko BEZa gehitu behar zaio. Eta lanok egiteko epea hiru hilabetekoa da. Eskaintzak aurkezteko azken eguna azaroaren 5a izango da, eta klausula ekonomiko eta teknikoen agirian adierazitako dokumentuak jaso behar dituzte. Eskaintzak aurkezteko lekua Kuartangoko Udala dela gogoratu beharra dago. Eskaintzak datorren hilean irekiko dituzte.

Maitane Beltran de Guevarak azaldu zuenez, Udalak berrituko du bainuetxearen aurrealdea eta bertan kokatuko diren enpresek, Ekotarriko kooperatiba kasu honetan, egokitu beharko dute barrualdea.

Sagardotegi batek ere irekiko ditu bere ateak Zuhatzu Kuartangoko bainuetxearen eraikinean. Ekotarriko hasi da jada lanean, baina sagardotegiko lanak oraindik ez dira amaitu. Sustatzaileek sagardoa ezagutzeko zentro bat ere irekiko dute.

**Maitane Beltran de Guevarak eta bere amak,
Zuriñe Vigalodok, jarri dute martxan
Ekotarriko kooperatiba. Kontserba
ekologikoak ekoizten dituzte**

Baina azkenean Zuhatzu Kuartangon jartzea erabaki zuten. Maitaneren anaiak, Unai Beltran de Guevara, ortu ekologikoa du haran honetan eta bainuetxeko eraikina erabiltzeko aukera sortu zitzairen Kuartangoko Udalari esker. «Udalak berrituko du eraikinaren aurrealdea eta guk barruko erreforma egin dugu», azaldu du. Inbertsioa inportantea egin dute behar duten makinak erosteko eta lekua egokitzeko. Eta lehenengo kontserbak egin dituzte jada Maitaneren anaia- ren barazkiekin eta bere aitak hazitako idien haragiarekin. «Elikagai guztiak ekologikoak dira, nire aitaren eta nire anaiaren produktuak erabiltzen ditugu, baina behar dugunean beste autonomia erkidego batzuetatik ekartzen ditugu osagaiak», azaldu du.

Lehenengo kontserbak egin dituzte, baina ez dituzte salgai

jarri. Lehen potoak laborategi batera bidali dituzte, produktu bakoitzaren nutrizio baloreak aztertu behar dituztelako etiketak egiteko. Horren zain daude. Espero dute datorren hilean dena prest egotea. Orduan hasiko dira kontserbak saltzen azoketan, produktu ekologikoak saltzen dituzten dendetan eta kalitatezko elikagaiak saltzen diren saltokietan, hau da, *groumet* produktuak saltzen diren tokietan. Zentzu horretan, egiten dituzten kontserbak ekoiztea erraza ez dela ohartarazi du. Ezta merkea ere.

Etorkizunari begira, Maitane Beltran de Guevarak egunero 500 poto ekoiztea espero du. «Gaur egun bete dugu helburu hori, baina baliabideak optimizatu behar ditugu», nabarmendu du. Hiru ildo ezberdinetan lan egingo dute: aurrez prestatuko plater ekologikoak, umeei zuzendutako poto ekologikoak

**Beltran de Guevarak Kuartango haran
ekologikoa bilakatzea du helburu.
Bainuetxearen barruan gela bat egokitu
dute hitzaldi eta ikastaroak eskaintzeko**

eta beste enpresa batzuek ekoiztutako produktuak esterilizatzeko zerbitzuak.

Interneten topa daitekeen dokumentu batean Ekotarriko kooperatibako emakumeek merkatuan haragiarekin egin dako kontserba ekologikoak ez daudela azaltzen dute; dirudie-nez, gaur egun barazki jaleei zuzendutako produktuak saltzen dira bakarrik Estatuan. Horixe da euren «aukera» handiena, baina badaude «mehatxuak» ere, krisi ekonomikoa eta hipermerkatuen konpetentzia esaterako. Aipatutako mehatxuei aurre egiteko euren filosofia zabaldu nahi dute, eta,

hori horrela, gela bat egokitu dute produktu ekologikoei buruz hitz egiteko eta ikastaroak eskaintzeko.

Beltran de Guevararen ustez, garrantzitsua da ikasleek eta ekoizleek produktu ekologikoen onurak ezagutzea. «Kuartango haran ekologiko bilakatzea dugu helburu», gaineratu du ideia «utopikoa» dela aitortu ostean. Kuartangoko nekazari askok ez dituzte produktu ekologikoak landatzen, apustu «arriskutsua» dela uste dutelako. Bainuetxera hurbilduko direnek Unai Beltran de Guevararen esperientzia ezagutu ahal izango dute, berak ibar honetan landatzen dituen barazkiak eta saltzen dituen arrautzak ekologikoak baitira.

Amaitu baino lehen, Maitanek erakundearen laguntza eskertu du. Izan ere, beraiek gabe oso zaila izango zen Ekotarriko kooperatiba sortzea.

Maitane Beltran de
Guevarak eta Zuriñe
Vigalondok sortu dute
Ekotarriko kooperatiba.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS





Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Zilborrak

Marraztu euskararen lurraldea». Eta mendi arteko zelai berde bat egingo genuen, erreka batek bustia eta zuhaitzez inguratua.


Hori garela sinesten genuen umetan. Eta batzuetan harritu egiten naiz munduak eta giza anatomiak nolako antza daukaten pentsatzen dudanean. Munduak badituelako birrikak, erretzaile batenaren gero eta antz handiagoa daukaten arren ba omen da birikarik han, Brasil eta inguruko oihan galduetan; eta ba omen ditu begiak ere, gero eta komunikabide erraldoiagoen betaurrekoek desitxuratzen badituzte ere; eta aho bat ere bai, eta aurrerabidea zer den eta zer ez den markatzen duten oinak ere bai. Eta baita zilborra ere. Beti harritzen gaitu beste norbaiten zilborrak, gurearen modukoa ez den korapilo bat beste norbaiten sabelean aurkitzeak harritu egiten gaitu. Gaizki egina dagoela iruditzen zaigu, edo barruregi dagoela, edo gehiegi nabarmentzen dela. Gure

zilborra baita besteenen neurria. Baina, adin batetik aurrera, zalantzan jartzen dugu gure zilborra bera ere. Arrotz sentitzen gara aldatzen ari den gorputz horretan, goizero desberdin sentitzen dugun haragi horrek dudamudan jartzen ditu gure barruko ziurtasunak. Institutura igaro ginenean gertatu zitzaigun guri. Bat-batean, neurrikoa zena arraro bilakatu zen besteen aldamenean, gure zilborra ez baitzen inguruari neurria ematen ziona: ingurua ari zen gure zilborrari balioa eman eta kentzen. Eta inguru hark, klasetik kanpo, gazteleraz funtzionatzen zuen.

Gizakiok, deseroso gaudenean, bi aukera izaten omen ditugu: desagertzen saiatzea edo ahalik eta gehien nabarmentzea, norbera nabarmentzeak norbere deserosotasuna ezkutatuko duen esperantzan. Nik lehenengoaren alde egin nuen. Mututu egin nintzen klasetik kanpo. Eta hitz egin behar nuenean, euskara desagertzen hasi zen nire ahotik, ez nuelako nabarmendu nahi. Lehenengo aldiz aurkitu nuen

nire burua euskaraz bizi ez zen mundu batean eta mundu hura, nire gorputzak, gazteleraz sentitu zuen. Lehenengo zigarroak, lehenengo maldizioak, lehenengo muxuak... gazteleraz probatu genituen; matematika, natur eta gizarte zientziak... horiek zegozkion euskarari 13 urteko gure gorputz aldakorrean. Eta ostiral arratsaldeetan euskaraz bizi zen lagunarte batera itzultzen ginen. Horrela ikasi genuen gure baitako diglosia zer den. Eta ohar-tzen hasi ginenean iritsi zen erabakiak hartzeko unea: gazteleraz probatutako lehenengo zigarroen, lehenengo madarikazioen eta lehenengo muxuen atzetik etorriko zirenak euskaraz sentituko genituela pentsatu genuen, berriz ere gure zilborrari begiratuko geniola. Euskaraz bizi nahi genuela alegia: lehenengo euskaraz, eta gero bizi. Aurkitu genuelako zilborreste bat elkarri lotzen gintuena, giro bat, literatura bat, lagunarte bat... batek daki zer, baina horri eutsi nahi geniola erabaki genuen, kontzienteki edo inkontzienteki.

Eta hala hasi ziren ugaritzen asteburuetako planak: Kilometroak eta Korrika soilik ezagutzen genituenok Herri Urratsera edo Nafarroa Oinezera joatera ausartu ginen, eta guk hartutako erabakiak hartu zituzten asko ezagutu genituen bidean. Eta oraindik ere, jendetza lokatzetan oinez ikusten dugunean zerbait pizten zaigu barruan. Akaso ez gaudelako ohituta hainbeste izatera. Norbere mundua euskarari ematea eta euskararen munduak norbere sentitzea. Baina hemen ez dago zuhaitzik eta zelai berderik: mahatsez inguratuta daude Viana eta Lodosa, lautada zabalak ikusten dira inguruan eta lehor daude bazterrak. Eta, hala ere, badira inguru hau euskaraz sentitzen duten haurrak. Badelako euskara bat zilborretik kanpo, topikoe-tatik kanpo, aurreiritzietatik kanpo, umetako marrazki sinpleegietatik kanpo. Gaztetan klasetik kanpo deskubritu genuen haren modukoa. Euskaraz bizitzea bezain garrantzitsua baita batzuetan bizitzea, eta gainera euskaraz egitea. •



Badira argazkiko inguru hau euskaraz sentitzen duten haurrak.

Lander FDEZ. ARROYABE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Laura Mintegi

X jauna

Asteazkenean 200 gaztek harrera “berezia” egin zioten Felipe Gonzalez presidente ohia-ri Universidad Autónoma de Madrid delako-
an. Juan Luis Cebrian Prisa taldeko presi-
dentearekin batera hitz egiteko asmo zuen
“Sociedad Civil, España y Europa. El futuro
no es lo que era” gaiaz. Baina hitzaldia bertan behera utzi
behar izan zuten ikasleak zain zituztelako mezuak es-
kuetan: “Ez zarete ongi etorriak: GAL, Panamako pape-
rak, estatu kolpeak, terrorismoa, manipulazioa, zentsura,
torturak, oligarkak”, “Eskuak kare biziz zikindurik ditu-
zu”, “Hiltzaileak unibertsitatetik kanpora”.

Ikasleek ez zuten unibertsitatean hartu nahi Espainia-
ko presidentea zen garaian GAL (Grupos Antiterroristas
de Liberación) erakundea sortu, hauspotu eta babestu
zuen politikaria.

GAL 1983an sortu zen eta, 1987an desagertu zen arte,
28 pertsona erail zituen He-
go eta Ipar Euskal Herrian.
PSOEn gobernua diseina-
tu eta Barne Ministerioak fi-
nantzatu zuen, epaitegia
frogatu ahal izan zen bezala.

Joan den irailaren 28an,
hiru egun lehenagoko hau-
teskundeetan PSE-EEK jaso-
tako emaitza kaskarren ha-
rira, Felipe Gonzalezek
berak esan zuen Ser irra-
titan: «Inoiz ez dugu izan
hauek bezalako emaitzarik
Euskal Herrian, egin geni-
tuen gauzak egin arren». Ai-
torpen kutsuko adierazpena, askoren ustez.

Felipe Gonzalez 1942an Sevillan jaio zen eta, Madrilen
Zuzenbidea ikasten ari zela, Belgikara joan zen. Javier Or-
tiz kazetariak 1996an idatzi zuen artikulua gogoangarri
batean (“Felipe Gonzalez: el hombre que necesitaban”)
deskribatzen du nolakoa zen orduan Gonzalez. «Anti-
frankista zen baina isilpean gordea zuen. Polizia politi-
koak ez zion ezer desegoki ikusi, finean berak Poliziari ez
ziolako ezer desegokirik egin. Europako demokrazia eu-
roparrak beka bat eskaini izan balio, demokristaua
bihurtuko zen. Baina sozialdemokrazia alemaniarra
ohartu zen beraz, eta orduan sozialista egin zen».

1962an sartu zen Juventudes Socialistas-en eta bi urte
beranduago PSOEn. 1960ko hamarkada amaitu aurretik
beste ikasle batzuekin batera Ameriketako Estatu Batue-
tako Madrilgo enbaxadara joan zen bere zerbitzuak es-

kaintzera «aurre egiteko unibertsitatean mugimendu ko-
munistari, gero eta indartsuagoa». Bisita horren testi-
gantz jasota dago orduko delegazio diplomatikoak bere
nagusiei bidali zien mezu erreserbatuan. Dokumentua
publikoa da gaur egun.

Washingtonen erabaki zuen sozialista gazte haiei la-
guntza ematea eta, bide batez, zuzendaritza sozialista za-
harra alboratu eta ahitzen ari zen erregimen frankista-
ren ondorengo agertokia prestatzen hastea.

1974an Gonzalez nagusitu zen PSOEn kongresuan
Suresnes-en, iparramerikarren laguntzaz, eta 1982an
gehiengo absolutuaz eskuratu zuen Espainiako presiden-
tetza. 1983ko otsailean Jose Barrionuevo Barne ministro-
ak martxan jarri zuen ZEN (Zona Especial Norte) plana
eta urte bereko urrian GALEk bahitu, torturatu eta erail
zituen Lasa eta Zabala. 1987ra arte, 26 pertsona gehiago
hil zituen.

Washingtonen erabaki zuen sozialista
gazte haiei laguntzea eta, bide batez,
zuzendaritza sozialista zaharra alboratu
eta ahitzen ari zen erregimen frankistaren
ondorengo agertokia prestatzen hastea

GALEkin lotura izateagatik Barne Ministerioko kide ba-
tzuk epaitu eta zigortu zituzten. Jose Barrionuevori eta Ra-
fael Verari 10 urteko zigorra ezarri zieten. Kartzelara sartu
eta hiru hilabetera kalean zeuden. Miguel Planchuelo eta
Julian Sancristobalek 10 urteko zigorra zuten, baina 10 or-
du eman zituzten kartzelan. Ezta egun bat ere. Ricardo
Garcia Damborenea ere 10 ordu egon zen kartzelan, eta
zigorra 7 urtekoa zen. Julen Elorriagari 75 urteko zigorra
ezarri zioten, eta 19 hilabete egon zen barruan. Enrique
Rodríguez Galindoren zigorraldia 75 urtekoa izan bazen
ere, 4 urtera bazebilen kalean eta Zaragozan bizi da egun.

Ekintzaile horien guztien nagusia Felipe Gonzalez zen,
X jauna ezizenaz ezagutua. X jauna ez da epaitua izan,
inoiz ez dute zigortu. Madrilgo ikasleek, baina, badakite
nor den Gonzalez jauna. Euskal Herrian betidanik jakin
izan dugu. •

Nafarroako antzinako mugak zaintzen zituen herria da Oibar, Zangoatik gertu. Bertan bizi da Imanol Ibero EHNE-Nafarroa nekazaritza eta abeltzaintza sindikatuko presidente berria. Ardo ekologikoa ekoizten du Mendiko upategian.

28 urte dituzu eta EHNE-Nafarroa sindikatuko presidentea zara. Ardura handia da. Azkenaldian ba al da nekazaritzaz bizitzeko hautua egiten duen gazterik?

EHNE-Nafarroa sindikatuko Exekutibo berriaren batez beste-ko adina nekazaritza arloan oro har ematen dena baino gazteagoa da. Egia da nekarazi gazteak mugitzen ari garela. Gazteak nekazaritzan sartzen ari gara, baina oso modu mailakatuan, oso modu murriztean. Beharrezkoa izango litzakeena baino askoz gazte gutxiagok egiten dute hautu hori. Nik erabaki hori hartu nuenean ingurukoek jende gaztea behar zela esaten zidaten. Aurreiritzirik gabeko jendea behar zela ere esaten zuten. Argudio horiekin konbentzitu ninduten. Baina sektorearen gaztetzea ez da Exekutiboan ematen den mailan ematen. Sektorea ez da gaztetzen ari, zahartzen baizik.

Hori arazo larria da. Nafarroan ematen da, Euskal Herrian eta beste tokietan bezala. Ez dago erreleborik erretiroa hartzen dutenak ordezkatzeko.

Bai. Hemen, Nafarroan, hori argi eta garbi gertatzen ari da. Nekazaritzaren munduak ez du gazteongan apartekougarrik pizten. Nekazaritzari eusteko gogorik ez dago. Niretzat hori izan da pizgarria, gure nekazaritzak zein bide daraman ikustea. Eta gazteok bizimodua ateratzeko zer-nolako aukerak ditugun ikustea: curriculumak botatzea, aldi baterako laneko enpresetara jotzea, hiriko lantegietan aritzea, lan prekarioetan murgiltzea... Gazteok ez dute ikusten inguruan baliabide pilo bat ditugula. Gainera, gure herriak

*«Nekazaritza
Politika Bateratuak
ekoizpen eredu
arrotzak,
sostengaezinak
diren ekoizpenak
bultzatu ditu.
Ondorioz, herrietan
nekazari kopurua
nabarmen jaitsi da»*

*«Herrietan eta
lurrean erroturiko
nekazaritza behar
da herriek bizirik
irauteko. Ez dago
herrien biziraupena
ulertzeko beste
modurik»*

honaino heldu badira baliabide horiekin bizi izan direlako da. Hori berriz baloratu behar dugu. Buruan ideia bat sartuta dugu, nekazariak oso gaizki bizi direla eta oso txiroak izan direla beti. Hori sartu digute buruan. Egia da gogor lan egin dutela, baina iraganeko bizi kalitateak ez dauka zerikusirik egungoarekin.


Beharbada kexa gehiegi izan dira nekazaritzan eta orain zaila da gazteei nekazaritza erakargarri gisa aurkeztea?

Nekazarien partetik baino agian hiritik zabaldu den diskurtsoa izan daiteke. Hirira joan zen nekazari horrek agian erantzuki-

zun bat izango du mezu horretan, baina egun gertatzen ari zaiguna herriez hiritarrek hitz egiten dutela da. Guk ez dugu ahotsik. Dena dago zentralizaturik, ez soilik Madril eta Bruselan, baita eskualdeetan ere. Herrietako ikuspegiak hirietako hitze-kin ematen dira. Prozesu horretan gazteok gure inguruarekiko atxikimendua galdu dugu.

Azken finean, herrien iraupen bera ere jokoan da. Nekazaritzarik gabe ezin dira landa eremuak edo herri txikiak ulertu. Bigarren egoitza ugari egon daitezke, baina horrek ez du herri baten bizitza bermatzen.

Noski. Hori izan da EHNEren betiko aldarrikapenetako bat. Herrietan eta lurrean erroturiko nekazaritza behar da herriek bizirik irauteko. Biziraupen hori ezin da beste modu batean ulertu, nahiz eta gaur egun herrian bizitzeko nahiago izan Viscofan enpresan edo paper-fabrikan lan bat izatea. Edo inguruan egin nahi duten potasa meatzean. Nahiz eta proiektuon larritasunaz jabetu, jendeak hori eskatzen du, herriek bizirik irauteko beharrezkoak direla uste dutelako. Baina gure herriek ehunka urte dituzte eta industriok 50 baino ez. Epe motzeko planteamendua da. Hemendik 50 urte-



«Nekazari- ek beren lur eta aber- eekin nahi dutena egitea bilatzen dugu, erabakitzeko eskubidea izatea»

ra nork esan dezake Viscofanek hor jarraituko duela, nahiz eta egun oso enpresa handia izan? Lurra, baina, beti hor izan den baliabidea da.

Lurrari loturiko balore horiek berreskuratzea gazteak nekazaritzaren mundura erakartzeko eraginkorrak izan daitezke? Bai, izan beharko lirateke gu-
txienez. Baina martxan den ma-
kinaria guztiarekin oso lan apa-
la egin dezakegu guk, sindikatu
apala izanik. Uste dugu hezkun-
tzan lan egin behar dela, baina
ez dakigu zehazki nola. Pedago-
gia eta atxikimendu hori gazte-
gaztetatik lortu behar den zer-

bait da. Zergatik ezin da Oibarko eskolan herriko ustiategietan lan egiten dutenekin harreman iraunkorrik izan? Zergatik ezin da lan nola egiten duten ikasi? Herriko komunitateak harreman-
ean jartzeko balio dezake, hel-
duak eta haurrak elkartzeko.

**Industria eta zerbitzu-
etako krisi eta prekaritatea ikusita nekazaritzara hurbiltzen diren gazteen kopurua hazi denik sumatu al duzue?**

Zerbait sumatzen da, bai. Hiriak eta eredu horrek eskaintzen duenarekin nazkatutako gazte batzuek herrietara begiratu du-
te, baina, hiritarrak hona ekar-
tzea baino, nire ustez lehen eginkizuna bertan gaudenok bertan gelditzea da. Gainera, ez da erraza beharrezkoak diren pausuak ematea. Lurrik ez badu-
zu, nola hasi nekazaritzan? Na-
gusi den eredu industrialak in-
bertsioa oso handiak eskatzen ditu lanean hasteko. Alde horre-
tatik muga handia da negozio bat hasi nahi duten nekazari ho-
rientzako. Laguntzak ere ez dira oso eraginkorrak. Burokrazian aditua bazara zerbait lor dezake-
zu, baina ez da erraza. Baina, ha-
la ere, zure galderari baietz erantzungo nioke. Orain falta dena gogo hori bideratzea da.

**Burokrazia aipatu duzu. Egungo nekazari-
ek begi bat lurrean eta bestea bulegoan duzue. Erdi nekazari erdi abokatu izan behar duzue, paper ugari bete behar dituzue-eta.**

Alde batetik, laguntzak eskatze-
ko goitik eta oso urrutitik dator-
kigun estruktura burokratikoa dugu. Horrek ezartzen digu nork zer behar duen uza bakoit-
zean, horren arabera ematen dira diru laguntzak. Menpekota-
suna indartu eta bultzatu egiten da. Bestetik, diru laguntzak albo batera utzita ere, burokrazia gu-
re eguneroko jardunaren parte da jada. Kontrol ugari jasaten di-
tugu. Egia da guk geuk sortu di-
tugula kontrol horietako asko. Nire belaunaldiari ez zaio toka-
tu, baina bai aurrekoari, jatorri izen eta kontseiluak sortzeko garaian. Izugarrizko kontraesa-
nak ditut horren inguruan. Ba-

dirudi gure hitzak jada ez duela balio eta polizia burokratiko bat behar dugula ekoizten ari gare-
na ona dela ziurtatzeko. Gure gi-
zartearen iraungitzearen isla da. Berez, norbanakoaren zintzota-
sunean sinetsi beharko genuke gauzak nola egiten diren azal-
tzerakoan. Baina egia da gizarte-
an tranpak nagusi direla, eta, hortaz, burokrazia hori guztia behar dugula. Oso tristea da.

**Horretan ere ezagutza falta egon daiteke, kontsumitzaile-
ak ez dituelako ekoizleak zuzenean ezagutzen.**

Bai, eta bitartekaritza behar da. Bestela nola dakigu zer dagoen ekoizpenaren atzean? Beharrez-
koak dira zigiluak eta kontrolak kontsumitzaileak berme bat izan dezan. Baina horrek kezka-
tu egiten nau, azkenean norba-
nakoren erantzukizuna ere ba-
delako gauzak ongi egitea. Hala balitz, gizartea bestelakoa litza-
teke. Alde horretatik egitura ho-
riek ongi erabiltzen saiatzen ga-
ra. Guk geuk sortu genituen eta erantzun egin behar diegu, baina ezin daiteke gure lana burokra-
ziaren arabera antolatuta.

**Burokraziaz eta arau-
ez ari gara, Europar Batasuneko Nekazaritza Politika Bateratua aipatu behar dugu ezinbestean. Zer suposat du Euskal Herriko nekazari-
entzako?**

Nekazaritza Politika Bateratua merkatu globalak teorian eska-
tzen zituen produktu-
etara orientatu izan da. Azken batean, diru laguntzak produktu horiek indartu edo murriztera zuzendu dira. Gurean izan duen ondorioa argia da: gero eta lur sail han-
diagoak sortu dira, ekoizpen eredu arrotzak ezarri dira, sos-
tengaezinak diren ekoizpenak bultzatu dira... Eta horrek he-
rrietan nekazari kopurua nabar-
men jaitea eragin du. Azken ha-
mar urteotan Nafarroan ia erdira murriztu da jardun naga-
si gisa nekazaritzan aritzen dire-
nen kopurua. Nekazaritza bul-
tatzeko eta indartzeko behar denaren aurkakoa egin da: ne-
kazarien kopurua jaitsi eta he-
rrietako betiko egiturak birrin-
du. Gero gure lurretan produktu



Argazkiak: Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

IMANOL
IBERO

EHNE-NAFARROA-KO BURUA


EHNE-Nafarroa sindikatuak presidente berria du: Imanol Ibero Oibarko ardo ekologiko ekoizlea eta nekazaritza eredu jasangarri baten defendatzaile sutsua.

Martxelo Diaz Aristizabal

arrotzak sartzeak beste ondorio batzuk izan ditu, adibidez, Nafarroako Ubidea bezalako azpiegiturak egitearena. Nori burutzen zaio euririk egiten ez duen toki batean artoa edo arroza jartzea? Ureztatu nahi baduzu, izugarrizko ubidea behar duzu ura eramateko. Beste ondorio bat lurra esku gutxi batzuetan pilatu dela da. Ekoizpen handiak, eredu industrialak bultzatu dira. Makinarian inbertsioa handiak beharrezko bihurtu dira, eta hazi eta insumoen menpekotasuna ezarri da. Adibidez, Oibarren enpresa batek lur pila hartu ditu errentan. Lur onenak. Kontratuak egin ditu nekazariekin. Diru dezente pagatu du, baina lurrraren gainean erabakitzeak ahalmena galdu dute nekazariak. Orain soldatapeko langileak dira. Orain arte nekazariak beti burujabe izan dira, egun gero eta menpekoagoak dira.

Horren aurrean, beste nekazaritza eredu bat (ekologikoa, inguruari lotua) aldarrikatzen duzue irtenbide bakar bezala. Azkenean hori da nekazaria ahaldunduz duena. Agian ez da soilik ekologikoan aritzea, baina bai ingurunearekin ahalik eta modu jasangarrienean jokatzeko. Adibidez, ez dakit nongo meategitik potasa ekarri beharrean simaurra erabiltzeak burujabeago egiten zaitu. Eredu horrek lurrraren orekan aberastasun gehiago sortzen du eta landarea aprobe-txutzen du. Hemen ere erabakitzeko eskubideaz ari gara. Nekazariak beren lur eta abereekin nahi dutena egin ahal izatea bilatzen dugu. Baina horrek beste hanka bat, kontsumoarena, eta hor ere erantzukizuna behar da; lan polita egiten ari da.

Gobernu aldaketa izan da Nafarroan. EHNE egondako Ignacio Gilek ardurak ditu egun Nekazaritza Sailean. Nola ikusten dituzue gauzak aurreko gobernuarekin konparatuta? Harremanetan eta diskurtsoan nahiko ados gaude, egia esan. Adibidez, Isabel Elizalde kontseilariak gure kongresuan parte hartu zuen eta bere diskurtsoa bota zuenean ia guztiz bat



gentozen esan zuenarekin. Politikariak ahalmenak izan badi-tuzte, baina jendeak eta kaleak atzetik bultzatzen ez badute zaila da. Nik uste Gobernuan dagoen jendeak zintotasunez sinisten duela EHNEk proposatzen duen nekazaritza eta abeltzaintza ereduak, baina ez da erreza.

Aurreko ereduak Nafarroako Ubidea bezalako azpiegiturak indartu ditu, eta horrek hipoteka astuna suposatzen du. Bai, eta Europak markatzen dituen irizpideak ere hor daude. Ez dakit Europa noraino den gai Nafarroak nekazaritzan duen dirua nora bideratu behar duen erabakitzeke. Bruselak inposatzen duen ereduak nora garama-

tzan argi dago. Ez gara gai gobernatzeko. Nafarroa berezia da.

Zein helburu dituzue EHNE Nafarroan? Lehena, dagoena defendatzea. Dagoen egoera ez da erraza nekazari eta abeltzaintzat, baina hori defendatzea da lehenengo erronka, eta ez da xamurra. Adibidez, orain Danonek Baztango esne ekoizleei apiriletik aurrera ekoizpena hartzeari utziko diola jakinarazi die. Ahalik eta kopuru handienak eskatzen dizkiete euren zisterna erraldoiekin joateko. Horrek adierazten du eredu industrialak bere horretan jarraitzen duela eta esplotazio txikiek hori sufritzen dutela. Bestetik, Kongresuan ere bota

IBILBIDEA

Urriaren 1ean Berriozarren egin zuten kongresuan hautatu zuen Imanol Ibero EHNE-Nafarroako presidente berri gisa. 1.300 bazkide dituen sindikatuaren buruak 28 urte ditu. Oibarkoa da eta bertako Mendiko upategian aritzen da, aitarekin batera. Ardo ekologikoa ekoizten dute. Herriko zinegotzia ere izan da, kandidatura herritar baten eskutik.

genuen, irabaztera atera nahi dugu, ez soilik defendatzera. Eta erronken artean hezkuntzarena garrantzitsua da, gazteek behar dituzten ezagupen eta beharrak herrietatik herrietara sortzea. Luzera begirako zerbait da, baina herrien biziraupena, gazteen laneratzea eta eredu jasangarriak bultzatutako ditu. Elikaduraren burujabetzan ere pausuak ematea beti izan da EHNEren erronketako bat. Aurrera goaz, Errigora da adibide argia. Kontsumitzaileen arloan sortzen ari den giroa itxaropentsua da.

Oibarren bizi zara eta ardo ekologikoa ekoizten duzu. Mendiko upategian egiten dut lan, aitarekin. Biok aritzen gara. Aitak sortu zuen 2000. urtean. Aurretik Iruñean ibili zen lantegietan, baina bere lanaren jabe izan nahi zuen eta nekazaritzara jo zuen. 1995ean mahastiak jarri zituen. Mahasti zahar bat genuen, aitonarengandik jasoa. Lehenengo urteetan herriko kooperatiban aritu zen, baina lurra zaintzen duen eredu baten alde egin eta ekologikoan hasi zen. Nik betidanik izan dut harremana mahatsarekin. Iruñean energia berriztagarrien goi ziklo bat ikasi nuen, baina hiriko bizitzak ez nau bereziki erakartzen eta herrira bueltatu nintzen. Aitarekin hasi nintzen. Lehendabizi ordu batzuk eta gero gehiago. Eta gaur da eguna belaunaldi aldaketa gauzatu dugula! Gure mahastietatik egiten dugu ardo guztia. Dena ekologikoan egiten dugu. Gure upategian ekoizten dugu ardoa eta salmenta taldeak guk geuk kudeatzen saiatzen gara. Denda-txo bat dugu Iruñean eta Euskal Herriko beste toki batzuetan saltzen ere saiatzen gara. Gipuzkoan, Nafarroan eta Iparraldean saltzen dugu batez ere. Asko lagundu gaituzte mugitzen hasi diren kontsumo taldeek, Aramaion eta Arrasaten daudenek, adibidez. Eta Errigora ekimenak ere sekulako babes eta bultzada ematen digu gure apustuarekin jarraitzeko. Upategietan nenbilen orain EHNEko lana ere tokatu zait, eta, beno, bietan ari naiz asko ikasten.



Juanan RUIZ eta Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

LARDERIAREN OLATUA URRATZEKO, HITZA ETA ARRAUNA

Goierriko, Debagoieneko eta Ispasterko herritarrek bezala, joan den udan hitz egin zuten azpeitiarrek. Aste honetan, gainera, lekukoa pasatu diete Urola Kostako gainontzeko herritarrei, eurek ere beren borondatea azalaraz dezaten, datorren udaberrian. Ez da batere zaila, hautestontzia eta hitza besterik ez direla behar esango luke herritarren borondatea bete beharra dagoela uste duen edonork. Baina hitza ez da nahikoa. Ez, behinik behin, hainbeste herri mendean izan dituenarentzat. Behin eta berriz baztertu du hitza; behin eta berriz joan zaizkio mendetik herriak. Hitza ez da nahikoa, esate baterako, itsasoko olatuak urratzeko. Itsasoak hitz egiten du, baina ez daki zer diren marinelen erabakiak. Oiertzualdean ere hitz egingo dute datorren martxoan, eta eskualdeko arraunlariek hitza hartzeko deia egin berri dute. Eta hitza ez dela nahikoa ere adierazi dute, boga ere egin beharra dagoela larderiaren olatuak urratzeko.

Xabier Izaga Gonzalez

Izuak koloreak ditu

Miren Azkarate
Badiola

Hilaren hasieran Guardia Zibilak gelditu ninduen kontrol batean. Lehen aldia zen aurrez aurre nituela duela hamalau urte beraien eskuetan torturatua izan nintzenetik. Kartzelako trasladoak kontutan izan gabe, ikusi, usaindu eta entzun gabe nituen orduz geroztik, zorionez!

Harrigarria da gizakion burmuinak zein azkar pentsatzen duen batzuetan! Ez ziren bost segundo baino gehiago pasa ikusi eta geratu ninduten arte, eta denbora tarte txiki horretan denetarik pasa zitzaidan burutik: buelta ematea, galderen erantzunak pentsatzea, “bazilatzen” baninduten nire burua lasai mantentzeko aginduak...

Hainbestekoa zen nire gogoa beraiek izan ez zitezen, furgonetak urdin ikusi nituela momentu batean! Nire ilusioa berehala desagertu zen, berdeak ziren.

Hankak dar-dar batean nituen, eta, agente jaunaren ahotsa entzun nuenean «*buenas tardes*» esanez, bizkar hezur gutitik behetik gorako zirrara hotz bat nabaritu nuen, uste izan nuelarik beldurrak hantxe salduko ninduela. Baina ez, erantzun egin nion, goitik behera begiratu zuen autoa eta aurrera jarraitzeko eskatu zidan. 200 metrora dagoen gasolindegian geratu nintzen, autotik jaitsi, arnasa hartu, negar pixka bat egin eta lagunarengana joan nintzen.

Jende asko etorri zitzaidan burura, horien artean Urkullu jauna eta aste horretan egin zituen torturari buruzko gogoe-tak, zutik egotea, poltsa egitea eta elektrodoak jartzea ez dela berdina esanez. Tortura batzuk besteak baino txikiagoak izango balira bezala, eta, noski, Ertzaintzak erabiltzekotan, azken horiek erabil-

tzen dituela ulertarazten. Beste aukera galdu bat aitortzeko Ertzaintzak ere tortu-ratu egin duela herri honetan. Maila poli-tikorik ez zuela banekien, baina gizatasu-na ere ez zuela erakutsi zidan.

Niri bai egin zidaten poltsa, elektrodoak ukitzera iritsi nintzen eta zutik eduki nin-duten. Baina badakizue zein izan zen tor-turarik latzena niretzat? Sinistea ondoko gelan entzuten nituen «Miren lagundu!» oihuak nire anaiarenak zirela. Urkullu jau-naren arabera, hori ez da tortura.

Torturak ez du mailaketarik. Bat zaplaz-teko batek ondoratuko du, beste bat pol-tsak, beste bat zutik egoteak... Eta berdin du zein koloretakoa den uniformea, ber-dea, urdina edo gorria.

Hori bai, nik ez dut berdeen kontrol bat gehiago ikusi nahi, ez behintzat hurrengo hamalau urteetan. •

Desorekak

Antton Izagirre

Aste honetako Pobreziaren Aurka-ko Nazioarteko Egunean gogora-razi digute gure Europa aberatse-an ia populazioaren laurdena, ehun eta hogeita bost milioi biztanle in-guru, pobrezia egoeran bizi dela. Eta ho-rren ondoan ikusi dugu nola, Correa jau-na buru dela, sistemak bere-berea duena eginez, urtetan hainbat enpresari eta po-litiko esku-beteka lapurtzen eta aberas-ten aritu diren. Eta ondorengo albistean gure lurraldeko politikariek paparra era-kusten ikusi ditugu ekonomia haiei esker hoberantz doala aldarrikatuz.

Eta batek pentsatzen du ez dela posible entzuten ari dena aldi berean gertatzea, edo norbait gezurretan ari dela, edo egia izatekotan, gertatzen ari dena eskandala-garria dela.

Hori guztia gertatzen ari da nonbait demokraziaren tenplua den European, gu-re sorbaldan, etxe inguruan, eta pentsa-tzen jarriak gara ea horrek erremediorik ez duen, ea derrigor kondenatuak garen zama hori guztia patxadaz eta tenplez, asaldatu gabe jasan behar izatera.

Komeria zera da: asaldatzen hasita ez dakigula noren aurka asaldatu, egoera horren erantzuleei izena jartzen hasita, sistema egiten dugula erantzule, Kapita-la, Troika, FMI, Munduko Bankua eta an-tzeko erakunde bihotz eta aurpegi gabe-ak; eta zaila egiten zaigula gure haserre osoa erakustea. Giza miseriak horrelako-ak dira, errazago egiten zaigu gure albo-ko oilo-lapurraren aurka oldartzea, mun-du osoan halako sarraskia eragiten ari direnen aurka elkar harturik jardutea

baino. Errazago zaigu, etsipenean, dagoe-na dagoenean onartzea, egoera aldatzeko erantzun arrakastatsuak bilatzea baino.

Ezinbestean, ez dugu beste erremedio-rik gertuena duguna aldatzen hastea bai-no. Izan ere, gertuena duguna ondo eza-gutzeaz gain, erantzule politikoak ere hortxe ditugu, bihotza ez dakit baino aurpegia jar diezaiekegu.

Edozein haurrek badaki ongi banatuz, banaketa orekatuaz, irits gaitezkeela po-brezia ezabatzeraz. Badago pobrezia eta badago zer banatua. Nola banatu ere ba-dakigu: soldata unibertsala eta pentsio duinak lirateke Euskal Herrian pobrezia ezabatzen hasteko neurri politikoa. Dirua badago, borondate politikoa ez nonbait. Badugu pobreziaren aurka nola eragin eta non oldartu. Egingo al dugu? •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Elikagai ekologikoen bizitasuna, hiriburuuetako kaleetara

Elikagai biologikoen ezagutza geroz eta zabalagoa izanagatik ere, ENEEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilutik sarritan sumatzen dugu jendarte zabalak ez daukala argi zer den nekazaritza ekologikoa eta zeintzuk diren gure ekoizpen eta kontsumo eredu horretatik sortzen diren elikagaien ezaugarriak. Are gehiago, iruditzen zaigu ENEEK bera ez dela oraindik oso ezaguna. Bada, gabezia horri, hein batean behintzat, erremedioa jarri asmoz, komunikazio-kanpaina zabal bat abiaraztea erabaki dugu, hiriburueta-ko kaleetan gune erakargarri eta atseginak sortuz, eta elikadura ekologikoen inguruko programa beteak prestatuz. Helburu nagusia da bertoko elikagai ekologikoak herritarrenganaino hurbiltzea, ekoizleak eta erosleak parez pare jartzea, ekoizpen eredu horrek euskal jendartearentzat duen garrantzia komunikatzea. Finean, gure nekazaritza ekologikoak duen bizitasuna lau haizetara zabaltzea. Horregatik, hain zuzen ere, Izaera Bizia da kanpainaren izenburua.

Elikadura ekologikoen esparrura mugatuta baldin badago ere, kanpaina ENEEK partaide den NIREA ekimenaren testuinguruan kokatzen da. NIREA Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen eta landa nahiz itsasertzeko ingurunearen berriantzea sustatzeko programa da eta gure gizartean eta sistema ekonomikoan egiten duten ekarpena aintzat hartua izan dadin lan egiten du.

Ekoizpen ekologikoen ezaugarri bat da bere izaera bizi eta berritzailea. Bizia, bizitzarekin erabat lotua dagoelako: ingurumenaren zaintzarekin, gizakion osasunarekin. Bizia ere, era etengabea mugimenduan dagoen sektorea delako, berrikuntzaren xerkan gelditzen ez dena. Lurra eta jendarte elikatzen dituen ekoizpen-sistema garatzen ari dira nekazari ekologikoak hamarkada batzuetatik hona, eta hori egiten ari dira aurkako korronte oso indartsu bati aurre eginez. Denborak bakoitza bere tokian jartzen duenez, egun argi dago nekazaritza intentsifikatuak ez duela etorkizunik. Beste era batera esanda; lurraren mugak eta naturaren arauak

errespetatu eta gizakion osasuna erdigunean jartzen duen eredu baten beharrea gaude. Nekazaritza ekologikoak baldintza horiek betetzen ditu.

Bada, Izaera Bizia kanpainak euskal produktu ekologikoen ezaugarri eta berezitasun horiek modu argi eta dibertigarri baten bitartez komunikatu nahi ditu, familia osoarentzat pentsatutako ekintzen bitartez. Iragan urriaren 13an abiatu zen, Gasteizko Urrezko Zeledoen Enparantzan, Ikerne Zuluaga, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendariaren eta Roman Bengoa ENEEKko lehendakari eta baratzezain ekologikoen eskutik. Ekitaldi laburraren ondoren, Izaera Biziaren erdigunea den merkaturtxoko postuak beraien produktu ederrak eskaintzeari ekin zioten, eta, hurrengo lau egunetan, igandera bitartean, ekintzaz beteriko programari hasiera eman zitzaion.

Programa segida izaten ari da asteburu honetan Bilboko Areatzan, eta bukaera izango du datorren ostegunetik aurrera Donostiako Katalunia plazan. Besteak beste, *showcooking* saioan, maila goreneko sukaldariak janarien prestaketari eta kontserbazioari buruzko trikimailuak erakus-

ten dizkiete bertaratutakoei; dastatzeetan, berriz, Izaera Bizia duten produktuek euren kabuz hitz egiten dute, beraien ezaugarri guztiak eta zapore bizitasuna haizatzuz. Izaera Bizia kanpainako benetako protagonistekin, ekoizleekin, zuzeneko solasaldiak ere programatzen dira, herritarrek zuzenean beraien zalantzak eta jakin-minak ager ditzaten, baserritarrei beraien lana eta beraien historia kontatzeko parada emanez.

FAMILIA GUZTIARENTZAKO JARDUERA SORTA


Haurretan pentsatuz, Izaera Biziak jarduerak erakargarri eta atsegin asko eskaintzen ditu. Marrazketa txapelketa fruta eta barazkietan oinarrituta, aurpegi margotzea, haziak ereiteko tailerra (non ume bakoitzak loreontzia etxera eramateko aukera duen, bere barazkia hazten ikus dezan), pizza lantegia janari-soberakinak aprobe-txatzen ikas dezaten...

Helduek ere izango dute beraien tarte tailerretan, marmelada eta tartak egiteko ekintzetan fruta eta barazki ezberdinak eraldatu eta denbora luzeagoz kontserbatzeko gakoak jasotzeko aukera izango baitute.

Nagusi zein helduentzat, "Elikadura osasuntsua, elikadura kontziente" ikuskizunaren emanaldiak egongo dira. En La Lona konpainiaren antzerki emanaldi horretan, Paula Afierik *clown*-ak modu didaktiko, ludiko eta dibertigarrian elikadurarekin eta osasunarekin loturiko gure eguneroko bizitzako alderdi ugari jorratzen ditu. Joko, malabar eta akrobazien bitartez, berriz, bizimodu ez osasuntsuen inguruko dramatizazioa egiten du antzezlanak, familia osoa janari lasterraren arriskuez ohar dadin, eta produktu osasuntsu eta ekologikoak kontsumitzeak daukan garrantzia barnera dezan.

Bizkaitar eta bilbotarrek gaur eta bihar artean daukate aukera elikagai ekologikoen izaera bizia bertatik bertara ezagutzeko. Gipuzkoar eta donostiarrek datorren ostegunetik igandera arte, urriaren 27tik 30era, hartuko dute txanda. Ekitaldi guztiak eta kanpainaren xedea, www.izaerabizia.eus helbidean topatuko dituzue.

Argazkiak: Izena ABIZENA | AGENTZIA



Eloi Beato, Gasteizko Alde Zaharrean. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

infraganti ELOI BEATO

Arte Grafikoko ikasketak bukatutakoan zinemara salto egin nahi izan zuen Eloi Beatok, baina antzerkigintzak katigatu zuen. Komediaren duintasuna aldarrikatuta, umorea arma gisa erabiltzen du. Aktore eta gidoilaria da, baina batez ere zuzendaria. Datorren urtarrilean estreinatuko du «Desoxirribonukleiko» komedia «musikal-zientifikoa».

Zortzietan puntuan iritsi da, «leher eginda, baina oso pozik, oso gustura». Urtarrilean Glu Glu Ekoizpenak konpainiak bere zuzendari-tzapean estreinatuko duen obraren prestaketan buru-belarri dabil azkenaldion. Aktore baino zuzendariagoa omen da Eloi Beato, «erosoago» sentitzen da, lan horretatik ekarpen handiagoa egin dezakeela uste baitu. Aktore

«normaltsua» dela dio; edonola ere, aktore gisa, antzerkian ez ezik, zineman ere lan egin izan du, baita entzute handiko hainbat zuzendarirekin ere: Juanma Bajo Ulloa, Iñaki Dorronsoro, Joaquín Trincado, Enrique Urbizu...

«Betidanik» zinegile izateko irrika bazuen ere, Gasteizko Jesus Obrero lanbide eskolan Arte Grafikoa ikasi zituen. Behin goi teknikari titulua jaso ondoren, baina, ez zuen inoiz inprimategien munduan jardun, zinemaren ha-

rrak bere horretan jarraitzen baitzuen. Bere ilusiorik handiena film bat zuzentzea omen zen; hala ere, Euskal Herrian ez zegoen horretarako aukerarik, eta, «antzekoena», Antzerti zela pentsatu zuen, Lakuako Gobernuaren Arte Dramatikoko Eskola sortu berria. Hartara, bertan matrikulatu eta lau urteren buruan lizentziatu egin zen. Ondoren Errealizazioa eta Gidoigintza ikasi eta Euskal Herriko Unibertsitatean Ikus-entzunezko master bat egin zuen.

Bere karrera zinemagintzara bideratzea espero bazuen ere, antzerkigintzak katigatu egin zuen. Berehala hasiko zen aktore gisa lehenengo soldatak jasotzen, Donostiako Orain Konpainiarekin Estatuan zehar Valle-Inclanen «Divinas palabras» antzeztuz. Gizarte Segurantzako lana utzi eta antzerkitik bizitzeko ahalegin hura arriskatzea zela onartu du. Hala ikusten zuten orduan Eloiren gurasoek, «herriz herri ibiltzea gosearekin lotzen zuten nobabait...», eta ez zebiltzala guztiz oker dio Eloik, irribarrez.

Antzerkigile gasteiztarraren ibilbidearen ezaugarri nagusia, edo bistakoena behinik behin, umorea da. Beharbada Orain Konpainiarekin antzeztu zuen lehen obra gogoan, komediaren duintasuna aldarrikatzen du, nobabait balio gutxi duen generotzat jotzen omen dute eta. Baina barrea eragitea oso zaila dela dio, negarra eragitea baino zailagoa. «Jendea bere minekin eta miseriekin etortzen da, eta horiek aktibatzea errazagoa da».

Edonola ere, ez omen du barrea bakarrik bilatzen. Izan ere, umorea, Eloiren eskuetan behinik behin, tresna bat da, «sektore guztietara iristeko arma bat, beste era batera esaten baduzu arbuioa sor lezakeen zerbait onar dezaten balio duena». Horregatik ez du sekula umore zuririk egin. «Kolorea izan behar du, gorria, berde, morea... baina zuria inoiz ez». Izan omen da emanaldiren batean altxatu eta asaldatuta joan den jenderik ere, «baina, oro har, umorea erabilita, edozertaz hitz egin, edozer kritika dezakezu». Dioenez, egiaz politika egiteko sartu zen antzerkigintzan, «antzerkia politikoa baita, eta ha-

la behar du izan, arte guztiak bezala, bizitza berez politikoa da-eta. Jendeak barre egitea nahi dugu, jakina, baina baita emanaldia bukatutakoan, etxeratzean edo lagun artean garagardo bat eskuan, gogoeta egin eta eztabaida dezan ere».

80ko hamarkadaren bukaeran, Donostiatik Gasteizera egin zuen atzera berriro eta Ñake bikote komikoa sortu zuen Josean de Miguelekin batera. Guztiaz arduratzen ziren biak: ekoizpenaz, zuzentzeaz, antzezteaz, jantziez... Eta aldi berean, Jon Gabella eta Gorka Aginagalderekin batera sortu zuen Sobradun taldean ere jarduten zuen Beatok. Sobradunen lehen obra «Herminio y Miguelito» Mauro Entrialgoren «Herminio Bolaextra» komiki zerrenda sailaren moldaketa izan zen, antzerkia ikusten ohituta ez zegoen jendearen artean ere arrakasta ikaragarria izan zuena. «Orduan konturatu ginen jende askok gustuko duela antzerki alternatiboa, zuzenagoa, egur gehiago ematen duena». Eta formatu horri eutsi zioten Mauro Entrialgo («Un millón de gilipollas», «No hay huevos») eta ondoren Santi Orue («Hablar es de bobos») komikigile gasteiztarrekin batera idatzitako testuak antzeztuz. 2002. urtean Jon Gabella auto-istripuz hil zen, eta Sobradun taldea desagertu egin zen.

Oraindik Ñaken ziharduela, Glu Glu Ekoizpenak Bilboko konpainiaren deia jaso zuen eta erronka handi bati aurre egin behar izan zion: Javier Vizcaino kazetariak Radio Euskadin egiten zuen «Cocidito madrileño» astakeria-bilduma antzerkira moldatzea. Galder Perezen testuekin, erronkari eutsi eta sekulako arrakasta lortu zuten Madrilén Euskal Herriko egoeraz esaten zituzten astakeriak antzeztuz. «Eta jende horrek oraindik irratian, telebistan, prentsan jarraitzen du», dio Eloik. Lan harekin antzokiak betetzeaz gain, emankizun bikoitzak ere egin behar izan zituzten.

Bere ibilbide luzearen hurrengo etapa Kunka konpainian egin zuen Eloik. Ñaken eta Sobradunen izandako kideek sortu zuten konpainia hura, Joxean de Mi-



Orduak ematen ditu jendea ikusi eta entzuten, bizitzak irudikatzen, jokaerak kopiatzen. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

guel, Gorka Aginagalde eta berak, hain zuzen. “Meando fuera del tiesto” eta “Sexo gratis” obrak, ordura arteko guztiak bezala, barrukoak ziren. «Kaleko antzerkiak azpiegitura handiagoa eskatzen dizu», dio Eloik; hala ere, salbuespenen bat edo beste egin zuten; esate baterako, “Playas de secano”, igerileku, urtegi edo hondartzetan antzezten zutena. Ondoren, haurrentzako ikuskizun bat ere egin zuten, “Eskubideak ditugu”, herrietako kultur etxeetan haurrei beren eskubideak azaltzeko lana, «baina alamenaren eman gabe, esketxerik bidez». Era berean, adineko jendearentzat prestatutako esketxak antzeztu zituzten Arabako herri eta herrixketako hirugarren adinekoen elkartetan.

Kunkaren azken obra, “Historias canallas”, «tragikomikoagoa» izan zen, ordurako krisiaren zantzuak sumatuta. Komiko gisa, beti bizi omen da krisian, baina, 2008az geroztik, ordu artean

izan zituzten «papurrak» ere desagertu ziren. Eta gero «bizirau-teko lanak» etorri ziren; esate baterako, Madrilgo enpresa batean jendaurrean hitz egiten irakastea. Eta langabezia.

Orain, berriro Glu Glu konpainian, «labearen» du Beatok komedia «musikal-zientifiko» bat: “Desoxirribonukleiko”. Urtarrilean estreinatuko dute, Basaurin gaztelaniazko bertsioa eta Gernikan euskarazkoa. “Cocidito madrileño” bezala, Galder Perezek idatzi du obra eta Eloik zuzenduko du. Aktore zerrenda ere ez da nolana hiko: Itziar Ituño, Susana Soletto, Martxelo Rubio, Ugaitz Alegria eta Ylenia Baglietto.

«Umorea sektore guztietara iristeko arma bat da». Horregatik ez du sekula umore zuririk egin. «Kolorea izan behar du, gorria, berde, morea... baina zuria inoiz ez», dio Eloi Beatok

Orduak eman izan ditu tren geltokietan, jendea ikusi eta entzuten, haien bizitza irudikatzen, haien jokaera kopiatzen. Azken batean, bere lana jendearen ahotsoa jartzea dela dio

Oraintsu, gainera, beste lantxo bat ere pilatu zaio, datorren asteazkenearako “Zeu zara EITB” gala prestatu behar du eta. «Lanik ez duzunean, inork ez dizu deitzen, eta, berriz, galtzak bete lan zabil-tzanean...».

Pertsonaiak sortu eta berarenei bizi emateko inspirazioa kaltetik datorkio. Voyeur hutsa omen da. Orduak eman izan ditu, esate baterako, tren geltokietan, jendea ikusi eta entzuten, haien bizitzak irudikatzen, haien jokaerak kopiatzen. Azken batean bere lana jendearen ahotsoa jartzea dela dio, bozgorailu txiki bat izatea. «Hau ez da zinema edo musika, baina ahal du-

gun neurrian kontzientziatu egin nahi dugu, jendearen telebistan ikusten denaz gainera besterik badagoela ikusarazi nahi diogu».

Ez du solasa bukatu nahi instituzioek kulturarekin erakusten duten zabarkeria gogorarazi gabe: «Madriletik hemengo udal-tara, Araban bereziki». Arreta eman dio PP orain Arabako egoera kultural penagarria salatzen lehena agertzen delako, azken legegintzaldietan Gasteizko Udala kudeatu eta murrizketa gehien egin dituen alderdia izanda. Jarraian horren helburua ere sumatzen du: bizkaitarrek eta gipuzkoarrek dena eramaten duten kontu hori erabiliz bazterrak nahastea, hain zuzen.

Eloi Beato, jendaurrean bezala mikroaren aurrean ere egoten dakien lagun atsegin, min eta miseria latzak osatzen ez dituen, baina trago mingotsak irensten laguntzen duena. •

Xabier Izaga Gonzalez



Olatz Arregi Uriarte

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Munduko konputagailu ahaltzuena berdea da?

Munduko konputagailu ahaltzuenei superkonputagailu deritze, eta horrelako makinak diseinatzen dituztenek errendimendu handiena lortzea dute helburu. Hala ere, konputagailuen kontsumoa izugarria da; munduan kontsumitzen den energiaren %2 superkonputagailuena dela diote. Bestalde, makinon funtzionamendu zuzena ziurtatzeko, hozte-sistema bereziak erai-ki behar dira, bestela, sortzen duten beroa dela eta, sistemaren osagaiak behar baino lehenago honda daitezke.

Superkonputagailua, gaur eguneko konputagailu arruntekin alderatuta, konputaziorako gaitasun handia duen ordenagailua da. Ideia bat egiteko, 2016ko makina ahaltzuenak 93.000 bilioi (93×2^{15}) eragiketa egin ditzake segundoko, eta, mahai-gaineko ordenagailu batek, berriz, 400.000 milioi (400×2^9) eragiketa inguru.

Baina, zer dauka konputagailu batek horrelako errendimendua lortzeko?

Bada, munduko ahalmen handieneko konputagailuak aztertzen baditugu, duten prozesadore kopurua da arreta ematen digun lehenengo gauza. 10 milioi prozesadore, edo zehatzago esanda, 10.649.600 nukleo edo *core* dira, egun, munduko konputagailu ahaltzuenak dituenak.

Hainbeste prozesadore lanean jarrita, horiek duten behar energetikoa da kontuan izan beharreko puntu garrantzitsua, eta superkonputagailu horrek, adibidez, 15.371 kW-ko potentzia elektrikoa du.

Top 500 eta Green 500

90eko hamarkadan hasi ziren osatzen superkonputagailu ahaltzuen zerrenda, Top 500 (www.top500.org). Horretarako, programa batzuk exekutatu eta lortzen den errendimendua neurtzen da. Geroago, 2007. urtean, hasi ziren superkonputagailuok kontsumitzen zutenaren arabera ere neurtzen, eta horrela, Green 500 zerrenda osatzeari ekin zioten (www.top500.org/green500/). Zerrenda horretan, energia-errendimendurako neurri gisa, eragiketa kopurua (*flop*) watt bakoitzeko ematen da.

Zerrendok munduko 500 superkonputagailu ahaltzuren informazioa jasotzen dute, eta urtean bitan eguneratzen dira, ekainean eta azaroan; beraz, hemen emango dugun informazioa 2016ko ekaineko da.

Badira datu interesgarriak zerrendotan, ondorengo paragrafoetan ikus dezakegun bezalaxe.

Makinon kokapenari erreparatu, ikus dezakegu, egun, Asia nabarmentzen dela kontinenteka. Baina, orain dela hamar urte, adibidez, beste bat zen egoera, jarraian aztertuko ditugun datuek erakusten duten bezala.

Herrialdeak hartzen baditugu hizpide, 2006an, AEBak ziren lehen postuan makinak %59,6rekin, eta 2016an berriz, Txina da aurreko postua hartu duen herrialdea, %33,6rekin. Hala ere, AEBak oso gertu daude, %33rekin.

Potentziari erreparatu, 50 superkonputagailu "berdeenak" kontuan hartuta, esan beharra dago zerrenda horretan ere Txina dela nagusi, 50 horietatik 21 bertakoak direlako. AEBek berriz, zortzi besterik ez dituzte horien artean. Kontuan izan behar da, zerrenda osoari begiratuta, hau da, 500 superkonputagailuekin osatutako zerrendari, bi herrialdeek antzeko kopuruak dituztela (168 Txinak eta 165 AEBek). Ondorioz, esan dezakegu Txinak egindako superkonputagailuak AEBetakoak baino "berdeagoak" direla.

Green 500 zerrendako lehendabiziko bost superkonputagailuak aztertzen baldin baditugu, bada gauza benetan bitxi bat, horietatik hiru beste zerrendako, hau da, Top 500 zerrendako azkenetakoak baitira. Baina, bestalde, bost horien artean ere, 3. postuan, superkonputagailu ahaltzuena dago, Txinako Sunway TaihuLight. Makina hori Txinan egina da guztiz, eta 15.371 kW-ko potentziarekin 6.673,84 Mflop/Watt-ko energia-errendimendua lortzen du. AEBetako azkarrena, berriz, 73. postuan dago zerrenda berdean, eta, bere potentzia 8.209 kW-koa izanda, 6.673,84 Mflop/Watt-ko energia-errendimendua lortzen du.

Bestalde, bi makinok Green 500 zerrendako lehenengoarekin alderatzen baldin baditugu, Japonian egindako Shoubu superkonputagailuarekin, hain zuzen ere, askotxo kontsumitzen dutela esan dezakegu: horrek 6.673,84 Mflop/Watt-ko energia-errendimendua lortzen du 150 kW-ko potentziarekin.

Argi dago urratsak ematen ari direla alor honetan, baina asko dago oraindik egiteko, eta superkonputagailuen garapenak ezin du kontsumo energetikoa albo batean utzi aurrera egin nahi badi. •



Superkonputagailuen energia kontsumoa ikaragarria da.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



IGNACIO ETXANDI. ETXANDI SENDIA FUNTSA

GERRA BERTATIK BERTARA, IGNACIO ETXANDIREN KAMERAN

Ignacio Etxandi donostiarrak egindako 36ko Gerraren argazki eta marrazki albumekoa da irudia. Elizondon zela, 24 urterekin, frontera igorri zuten, armada frankistarekin. Maila ekonomiko onekoa izanik, Leica bat zuen eta Ebroko frontearen hainbat argazki egin zituen. Gerra bukatutakoan, Iruñera joan zen bizitzera eta han Elena Iturralderekin ezkondu zen. 40ko hamarkadan, Donostiara itzuli eta margotzen hasi zen, besteak beste Jose Camps eta Ascensio Martiarena maisu zituela, baina argazkigintza utzi gabe. Euskal paisaiaren irudi bukoliko samarrak egin zituen, Baztan ingurukoak batez ere. Gerraosteko azken paisaia-pintoreetakoa, 1952an hil zen, 40 urte zituela. Haren omenez, pintore gipuzkoarren erakusketa bat antolatu zuten. Bertan Gonzalo Chillida eta Mari Paz Jimenez izan ziren.

PRIMIZIAN

GARAK eksklusiboki ekarriko dizu zure auzoko edo herriko ohiko saltokira

disko berria **Su Ta Gar** *Maitasunari pasioa*

*Taldearen ibilbidean diskorik bereziarena.
Sentimenduz eta pasioz osatutako lana.*



GARA rekin larunbata 22an eta igandea 23an

Prezio berezian: 10,95 euro soilik!

EZ GALDU AUKERA!



«Eskutitz hau bizitza eta bidea egunero
argizatzen diguzuenei bidaltzen dizuegu.
Gure bihotzetan zaudeten izar guztiei»

Su Ta Gar

